



# Sarean ere euskaraz

**EUKi**  
ASEGURUAK



**AURREZTU ZURE ASEGURUAN  
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**

**AUTO ASEGURUA**  
MOTORRA EDO FURGONETA  
... BAITA QUAD-A,  
AUTOKARABANA, KAMIOIA,  
BURU TRAKTOREA,  
AUTOBUSA, ATOIAK...

**AUTO  
ASEGURU  
ESKAITZA**

Informazio gehiago: [eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**

**8:00**etatik **22:00**etara

**Zapatuetan:**

**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Jon Urbe (Argazki Press)

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

– Okerrak zuzentzen –

Aurreko asteko aldizkarian, Danon Ahotan atalean (7. orrialdean) Santa Ageda bezperan herriko hainbat talde kalejiran ibili zirela idatzi genuen eta, informazioarekin batera, santaeskean irten ziren taldeen argazkiak kaleratu genituen, baina albistean jasotako informazioa ez da guztiz zuzena, hantzar bat egin genuen eta: taldeetako bat Un-

tzagako jubilatuen abesbatza zela idatzi genuen, baina Estaziño parean egindako argazkian agertzen direnak Kaleetan Kantuz abesbatzako kideak dira eta talde hori da santaeskean ibili zena. Nahi barik eragin dugun nahasmena barkatuko diguzuelakoa, aurrerantzean horrelakorik ez errepikatzen ahalginduko gara.

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MAKAL.** - Ahula, indar gutxikoa. "Ha umia beti izan da makala".

Gaixo. "Hankia hautsi ebanetik oso makal dago".

Bildurtia, koldarra. "Dan gizatuakin, hutsak bildurtzen daben makala dozu".

Gutxi, urri. "Atzoko aldian, makal dihardu gaur eurixak".

Zerbaiten haunditasuna edo txikitasuna indartzeko (ezezko esaldietan erabiltzen da normalean).

"Ez ei eukan meritu makala Batista kojuan papelaria hain ederto egittiak".

Askotan zentzu ironikoan erabiltzen da, kontrakoa esateko. "Ez haiz hi makala txuletak jaten".

Handia, itzela. "Lotsari makala eruan jonat".

## astean esanak

"Euskara batuaren beharra onartzen dugu. Euskara batua eraikitzeke oinarriaren auzia ere gainditu dugu. Aldiz, bada gainditu gabeko kontu bat: noiz, non eta nola erabili behar den batua; hutsune hori daukagun bitartean, beti izango da liskarra eta eztabaida. Beste herri batzuetan bezala, hemen ere ezinbestekoak dira 'tokiko batuak' eta ezinbestekoa, era berean, 'batu kolokiala' edo 'lagunarteko batua'. Euskalkiaren barruan ere badira eredu edo erregistro bi: lagunartekoa eta jasoa. Lagunarteko euskalkian idaztea oso ondo dago gaztetxe batean, baina ez,

adibidez, aldizkari bateko artikulu batean, nahiz eta herri edo eskualde euskaldun batekoa izan. 'Euskalkia' eta 'lagunarteko euskalkia' bi gauza ezberdin dira. Bizkaiko Batzar Nagusietako prentsa bulegoak mendebaldeko euskararen, bizkaieraz, bidaltzeak bere oharrak kezkatzen nau ni, ez futbol jokalaririk batek egiten duenak. Bizkaiko Batzar Nagusiek dialektoan idaztea gure barruan daukagun minbiziaren erakuslea da: ezjakintasunaren minbiziarena. Hala ere, batuaren izenean euskararen zenbait ezaugarri erabat galtzea oso negatiboa da: esaterako, Bizkaian gazte askok ez dakite eguena zer den"

(KOLDO ZUAZO, HIZKUNTZALARIA)

"Non daude entzuleak? Sentsazio hori daukat denbora guztian: ez ditut inon aurkitzen. Joaten naiz kontzertuetara eta ikusten dut zer dagoen, hamar-hogei lagun eta beharbada erdiak hizketan. Hertzainak, Kortatu... bat-batean entzuleria sutsu bat sortu zen. Kontzertuak masiboak izaten ziren, jendeak kantuak zekizkien, diskoak saltzen ziren, irratiaren musika programak zeuden... Musikak sozialki garrantzi handia zeukan eta azken hogei urteetan hori desagertu egin da. Egun, hogei taldeko kontzertuek funtzionatzen dute, baina musikagatik da? Ez. Funtzionatzen dute sozializatzeke topagune direlako"

(XABIER MONTOIA, ABESLARIA)



JON MIKEL MUJIKA

## Martzianoak


Percival Lowell 1855ean jaio zen astronomo bat izan zen. AEBetako familia dirudun bateko semea zen eta Harvarden egin zituen ikasketak. 1894an Arizonako Flagstaff hirian bere astronomia-behatoki propioa eraiki zuenerako Marte planetarekin itsututa zebilen.

Lowell, Giovanni Schiaparelli astronomo italiar entzutetsuaren lanak inspiratuta hasi zen planeta gorria ikertzen. Schiaparellik ohar txiki bat idatzi zuen behin behaketa batzuen ostean egindako marrazkien artean: "canali" (kanalak). Italiarrak ez zien garrantzia gehiegi eman Marteko lurrazalean ozta ozta ikusi zituen marratxo haiei, baina Lowellen buruan iltzatuta geratu ziren. Milaka ordu igaro zituen Lowellek bere behatokitik zerura begira eta, hara non, teleskopioa Martera zuzentzen zuen bakoitzean, han ikusten zituen beti *kanal* haiek. Ehundaka kilometro luzekoak ziruditen ubide haiek, Marten bizi zen zibilizazio batek eraikiak zirela pentsatzen hasi zen.

la bizi osoa eman zuen berak bakarrik ikusten zituen Marteko ubide extra-lurtar haien defentsan. Lowellek liburu eta artikulu ugari idatzi zituen eta New York Times-en ere argitaratu ziren bere idazkiak. Aspalditik jakina da Marten martzianorik ez dagoela, baina orain gutxi ezagutu da Lowellek ikusten zituen ubide haien jatorria. Aditu talde baten arabera, Lowellek ikusten zituen kanal haiek, teleskopioko lentean isladatzen ziren bere begietako zainak ziren.

## Egoibarra.eus webgunia barritu dabe 16 urte betetzeko atarixan

Gure herrixaren memoria historikua batzen daben egoibarra.eus webguniak 2002ko udaberrian ikusi eban argixa lehelengoz. Harrezkero ixa 16 urte pasau dira eta, tarte horretan internet eta teknologixa barrixak ez eze, webgunien itxuria eta internauten ohitturak asko aldatu diranez, Ego Ibarra batzordiarene orrixa sasoi barrixetara egokitzeko biharrian jardun dabe Codesyntax enpresakuak. Webguniaren itxuria barritu daben arren, edukixari eutsi jakola azaldu dabe Ego Ibarrik: *"Oin arteko eduki guztia mantendu da, baiña diseiñua goittik behera aldatu da. Azpiegitura teknikuan be egokitzapen eta barrikuntza txiki batzuk egin dira, erabiltzailliendako ariñagua eta erabilgarrixagua izateko asmuarekin. Bestalde, webguniak gordetzen daben materixal grafikua eta erretratu zaharrak modu egokixan erakusteko ahalegin berezixa egin dogula azpimarratu nahi dogu. Eta, horrekin batera, jende askok informaziñua telefono eta gailu mugikorretan begiratzen dabenez, holakuetan modu erosuan ibilli ahal izateko egokitzapen batzuk egin dittue".*



asteko  
**3.064**  
 datua

*lagun eguazen Lanbideren Eibarko buleguan izena-emonda urtarillaren amaieran, aurreko hillian baiño 100 gitxiago; 1.779 andrak dira eta 1.285 gizonak. Zerbitzuetan dagoz langabetu gehixen, 1.713; Industrian 590 langabetu dagoz.*

## Hirugarren gradua ezarri detse Iker Rokandiori

Zaballako espetxian 60 egun egin dittuan Iker Rokandio eibarrari 3. gradua ezarri detse. Aurreko barixakuan urten zan kartzelatik eta hamendik aurrera erdi-askatasunian bizitzeko aukeria izango dau, zigorra 3. graduaren daguala beteta: astelehenetik eguenera bittartian kartzelara (seguruenik Martutenera) jua biharko dau lotara, baiña biharrian segidu ahal izango dau eta asteburuetan etxian egongo da. Amaia Agirregabiriak, barriz, kartzelan jarraitzen dau, 3. graduaren zain eta honezkero 87 egun egin dittu barruan, Martuteneko kartzelan.



## Goi Argikuak be ospatu dittue Aratostiak



Urtero moduan, Goi Argi emakumien alkarrekuak Aratoste Martizena ospatu dabe aurtan be. Argazkixarekin batera bialdu deskuen informaziñuaren arabera, *"meriendatzeko pintxuak eta pastela euki genduaz eta, zergaittik ez, horrerri laguntzeko ardua eta txanpan kopatxua be. Primerako girua euki genduan".*

## Sasoï betian eta dantzan ospatu dittu 105 urtiak Isabel Barambiok

Untzagako jubilau etxeak jarduera berezixekin ospatu eben Aratoste Martitzena eta, horren aitzakixarekin, oin dala gitxi 105 urte bete dittuan Isabel Barambiori omenaldixa egin zetsen. Mendetik gorako bizitza dakan Isabel poz-pozik topau genduan, oparitu zetsazen lorak eta alaba bixak aldamenian zittuala eta, sasoi betian daguala oso argi laga zeskun han geguazen guztieri, konturau orduko dantzan hasi zan-eta. Zorionak eta segi holan!



Isabel bere bi alabekin omenaldixaren egunian.

## Oin dala hiru urtetik desagertutako Eibarko emakume baten gorpua aurkittu dabe Castron

Ustez Amaia G.G. 53 urteko emakumiaren gorpua astelehenian aurkittu eben desagertu zanian bizi zan Kantabriako kostaldeko herrixan. Trastero batian zegouan, beste hainbat altzari zahar, egunkari eta garbitzeko artikuluakin batera, eta gorpua guztiz momifikatuta zeguan.

2015eko martxuaren 23an desagertu zan bere etxetik eta famelixak salaketia ipiñi zeban orduan Eibarko Ertzaintzaren komisaldegixan. Guardia Zibillak famelixarekin hartuemonian jarri da Marques de Valdecilla ospitalian daguan gorpua identifikaizteko tramitiak egitteko.

## autuan

### KALERATZE BATEN INGURUKO SALAKETIA

LAB sindikatuak deittuta, konzentraziñua egin zan atzo eguardixan Eibarko El Corte Ingles parian. Sindikatuak salatu dabenez, dendako bihargin bat umia zaintzeko eszedentziatik bueltan kaleratu eben eta, epaitegixan salaketia aurkeztu arren, kaleratzia ez dabe atzera bota. Martxuan izango da epaiketia.

### 1948-XAN JAIXOTAKUEN BAZKARIXA

1948xan jaixotakuak maiatzaren 26xan ospatuko dabe aurten 70 urte beteko dittuela eta antolatatu daben jaixa, alkarrekin bazkaltzen. Preparauko dabenaren inguruko informaziñua nahi dabenak antolatzailliekin kontaktuan ipiñi eta emongo detse. Horretarako 659947895 (Pastor) edo 667635367 (Pedro Vega) telefonuetara deittu bihar da.

**FM** Funeraria-Ehorztetxe  
**Mugica**

**EIBAR**

Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**

Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO **funeuskadi**



**CONCEPCION DEL AMO CALDERON (2017-II-14)**  
**LUIS BLASCO CABEZON (2014-VII-17)**

**MAITEMINDUEN EGUNEAN JOAN ZINEN AITARENGANA**  
Zuen oroitzapena dugu lagun egunero.  
Horregatik, bizirik jarraitzen duzue gugan. SEME-ALABAK

## Enpreseri ingurumen arloko arauak betetzen laguntzeko ekimenak

Udaleko Ingurumen saillak martitzenian aditzera eman ebanez, Eibarren izaera industrialak daken enpreseri ingurumen arloko arauak betetzeko laguntza eskinduko detsen. Beste ezertan hasi baiño lehen, gure herriko enpresetan arlo horri eskintzen detsen arreta zelakua dan ezagutzeko, diagnostikua egin dau Udalak, Margube Aholkularitza eta Formaziño enpresarekin batera. Jon Iraola ziñegotzixak azaldu-takuari jarraituta, iaz egin eben azterlana, parte hartzeko prest egon ziran 39 enpresetan, eta horren analisisan oiñarrituta, daguazen premiña nagusiñak ikusi eta horri erantzuteko lehen pausuak emo-

ten hasi dirala esan eben. Diagnostikua jasotzen daben txostena egin eta azterlanian parte hartu eben enpreseri kopixa bana eman zetsen. Horrekin batera, ingurumen arloko obligaziñuak bete ahal izateko hobekuntza-jarduerak jasotzen dittuan Lege Gida bat sortu dabe: *"Gida bereziki Eibarko enpresendako eginda dago. Konsultarako oiñarritako dokumentu bat da, azkarra eta erreza, enpreseri lege-eskakizunak betetzen laguntzeko pentsautakua"*.

Diagnostikuaren emaitzak eta gida aurkezteko ekitaldixa egin dabe gaur goizian eta 2018rako aurreikusituen hobekuntzak be orduantxe azal-



Jon Iraola ziñegotzixa Margube enpresako ordezkariarekin.

tzeko asmua zeken. Bestiak beste, Laguntza Teknikoko Zerbitzu bat sortuko dabe, enpresak zalantzak argitzeko aukeria izateko. Udalaren webgunian, Ingurumen saillaren atalian zerbitzu horren inguruko informaziño guztia eskuragarri ipiñiko

dabe laster. Eta, horrekin batera, doaneko formaziño plana be prestatu dabe, atzeman dittuen gabezixeri erantzuteko asmuarekin. Horren barruan hainbat ikastaro emongo dittue eta horri buruzko informaziña be interneten egongo da.



Eguaztenetik barixakura animauko dabe jendia.

## Erosketetan be euskeria erabiltzera animauko dabe jendia Beherapenen Azokan

Datorren astian, eguaztenetik aurrera Toribio Etxabarria kalia egongo dan Neguko Factoring edo Beherapenen Azokan parte hartuko dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak, azken urtitan egindakuen bidetik. Azoka zabalduko daben hiru egunetan, eguazten, eguen eta barixakuan egongo dira, 10:30xetatik 12:30xetara eta 17:30xetatik 19:00xetara, erosketak egitterako orduan jendia euskeria erabiltzera animatzeko asmuarekin. Dendariak eta Ostalariak Berbetan programari lotuta, ipiñiko daben mahaira gerturatzen dan jendiari informaziña emotiaz gain, erosketetan euskeria erabiltzen ahalegiña egitteko prest daguazeneri erosketak egitteko poltsia oparituko detsen.

## Jubilaziño duiñak eskatzeko manifestaziña egin eben azken astelehenian be

Azken astiotako martxari jarraituta, astelehen honetan be jubilaumordua urten ziran kalera, Untzagan konzentraziña egin eta, jarraixan, Urkizuraino jaitsi eta Untzagara bueltia egin eban manifestaziñuan parte hartzeko. Espaiña mailan sare sozialen bittartez za-

baldu daben deialdi anonimuekin bat egin dabe gure herrixan be eta, horri erantzunda, astelehenero egitten dabe konzentraziña udal-letxe parian, Rajoyren gobernuak pensiñuen inguruan daroian politikaren kontra protesta egin eta pensiño duiñak eskatzeko.



## Iñaki Penedok hartuko dau Leire Abanzabalegiren tokixa ziñegotzi modura

Zazpi urtian EH Bilduko ziñegotzixa izan eta gero, Leire Abanzabalegik kargua laga eta Iñaki Penedok hartuko dau lekukua. Otsailleko azken asteleheneko plenuan egingo dabe kanbixua eta Penedo martxuan hasiko da ziñegotzi lanetan. Atzo honen barri emoteko prentsaurrekuan EH Bilduk eskerrak emon zetsazen Abanzabalegiri: "Urte honetan egin daben biharrarekin harro gaoz. Lan-taldiarri ikuspegi soziala eskindu detsa eta ekarpen ugari egin detsaz bai alderdixari baitta herrixari be".



## Greba eskubidiaren urraketia eta diskriminaziñua salatu dittue Alfako bihargiñak

Aurreko asteko eguenian prentsaurrekuia emon eben Alfako bihargiñak, gaur egunian egoe-ria zertan dan azaltzeko. Alfa Precisión Casting-eko bihargiñak greba mugagabia hasi ebenetik 85 egun baiño gehixago pasau dira eta, agerraldixan salatu ebenez, "denpora guzti honetan enpresiak ez dau errespetau bihargiñon greba eskubidia eta langillien etorkizunari buruzko mehatxua behin eta barriz errepikatu dittue. Gaiñera, greba egitten ari diranen lanpostuak enpresako beste langille batzurekin ordezkatu dittue eta, horrekin pozik ez eta langille barrixak be kontratau dittue. Gauzak holan, argi dago oiñarrizko eskubide bat urratu dabela". Hori dala eta, greban daguazen bihargiñak Donostiako epaitegixan demanda aurkeztu eben eta, horren harira, epaiketia euki dabe eguaztenian. Zuzendaritzak aurkeztutako kaleratze espedientiaren dokumentaziñua

otsaillaren 2xan jaso eben eta bertan 131 langille kaleratziia proposatzen dabela azaldu eben, "baiña kaleratziia bi fasetan izango da: lehelenguan 51 langille kaleratuko dittue eta gaiñontze-kuak, gehixen jota, uztaillaren 31n juango dira kalera". Datozen egunetan erakunde publikuekin, Administraziño Konkurtsalarekin eta ALFA taldeko zuzendaritzarekin mahai bakar batian biltzeko asmua dake. Bixen bittartian Eibarko eragille eta herritar guztieri dei egin nahi detse gaur 19:00etan Untzagatik abiatuko dan manifestaziñuan eta martxan daken siñadura-bilketan parte hartzeko. Eta bono-laguntzak eta txapak be ipiñi dittue salgai, bi eurotan. Lagundu nahi dabenak astelehen, eguazten eta barixakuetan Untzagako Infogunera jua leike eta, bestela, Ipurua, Xania, Azkena, Manuel, Beleko, Guridi, Txoko, Bossa, Buenos Aires eta Ez Dok tabernetara.



## Sahara Festa antolatu dabe otsaillaren 24rako

Eibar-Sahara Elkartek eta Inkorpore Coaching firma eibartarrak alkarlanian, "Sahara Festa" antolatu dabe otsaillaren 24rako. Goizetik hasiko dira jarduerak, Untzagan eta antolatu daben programiak gabera arte iraungo dau. Bestiak beste erabillittako liburu azokia, trikipoteua, txosna, Bihurri/Hodei Ezpeleta eta Zelai II.a/ Zelai III.a aitta-semien arteko aizkora norgehiagoka historikua, The Daltonics taldiaren kontzertua eta Muguri Panderoa taldekuak girotuko daben erromerixia egingo dira. Jaixari esker batzen daben dirua Oporrak Bakean programara bideratuko dabe.



## MUJERES AL CUADRADO

### Helburuak

Bizipen pertsonal gogor batetik abiatuta, Eibarko 3 emakumek Mujeres al Cuadrado elkarte sortu zuten 2010ean, indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko asmoz. Harrezkero emakume asko gerturatu zaizkie informazioa eta laguntza eske. Emakume horiekin hizkuntza berbera hitz egiten dute, entzuteko eta edozertan laguntzeko prest daude.

### Ekintza nagusiak

Eibarren martxan dagoen Jabetze Eskolaren lana finantziatzen dute, bertan egiten den lana funtsezkoa dela uste baitute. Jabetze Eskola prestakuntza, topaketa eta eztabaidarako gunea da; adin eta esparru guztietako emakumeentzat, emakumeon parte-hartze sozio-politikoari bultzada emateko.

Donostiako Zinemaldian iaz aurkeztu zen "Volar" dokumental arrakastatsuan parte hartu zuten Eibarko hainbat emakumerekin batera, eta azkenaldian dokumentalaren proiektio eta horren inguruko solasaldietan parte hartzen dihardute Euskal Herrian zehar, eta baita hemendik kanpora ere. 2016an Gure Baiokak saria jaso zuen Nerea del Campo elkarteko kideak eta berriki estatu mailako "La Menina" saria jaso dute urte guzti hauetan emakumeen eskubideen alde egindako lanarengatik.

**Helbidea:** Zezenbide kalea, 9 (Andretxea)  
**Telefonoa:** 943 70 08 28  
**E-maila:** m2eibar@hotmail.com  
**Webgunea:** andretxea.kzcomunidades.net



*Indarkeria matxistaren biktimei informazioa eta laguntza eskaintzen die Mujeres al Cuadrado elkarteak.*

## GOI ARGI EMAKUMEEN ELKARTEA

### Helburuak

67 urte pasatu dira Mercedes Kareagak Goi Argi emakumeen elkarte sortu zuenetik, Toribio Etxebarria kaleko 19. zenbakian. Gaur egun bazkide gehienak 80-90 urteak pasatuta dituzte eta arratsalde pasa, kartetan edo bingoan jokatzera joaten dira. Elkarteari haize berria emateko premia ikusita, iaz bi bazkide gazteago sartu ziren zuzendaritzan. Euren helburua elkarteari laguntzea da, "elkartea ez desagertzeko beharrezkoa baita erreleboa egotea". Bazkide kopuruak behera egiten du urtetik urtera –gaur egun 300 bazkide inguru dira–, eta gero eta zailagoa gertatzen zaie gastu guztiei aurre egitea. Beraz, Eibarko emakumeak animatu nahi dituzte bazkide egiteko. Urtean 50 euroko kuota ordaintzen dute eta "etxetik irteteko eta lagunartean egoteko aukera paregabea izan dezakete". Arratsaldeetan egoten da zabalik (zapatuetan izan ezik), 17:00etatik 21:00etara, eta bertan emakume bat egoten da kafeak eta edariak zerbitzatzeko eta emakumeei laguntzen. Igande eta astelehenetan tortillak eta pintxoak egiten hasi dira.

### Ekintza nagusiak

1951n emakumeei formazioa emateko helburuarekin jaio bazen ere, gaur egun aisialdira bideratuta dago elkarteak. Urtean egun berezietan Aratoste martitzena eta San Jose izaten dira, eta musika eta bestelakoekin ospatzen dituzte.

**Helbidea:** Toribio Etxebarria, 19  
**Telefonoa:** 677 75 49 85  
**E-maila:** esthereibar@yahoo.es



*Elkarteari esker arratsaldeetan etxetik irteteko aukera paregabea daukate Eibarko emakumeek. Berbetan eta kartetan jokatzeko primeran pasatzen dute.*



# Eibarko senar-emazte adintsuenen istorioa

## FELI SANTILLAN ETA FELIX KRUZELAEGI

1956. urteko maiatzaren 9an ezkondu ziren Feli Santillan eta Felix Kruzelaegi. 61 urte ezkondua eta 62. urteurrenaren bila. Gaur egun Eibarren inork ez dauka hainbeste urte senar-emazte moduan eta, horregatik, omenaldia jaso zuten San Balentin egunean Untzagako Jubiletxean. Errekatxutik Bista Ederrera, Eibarren bizi izan dute urte askotako maitasuna. Eta oraindik geratzen zaiena!

### - Nola ezagutu zineten?

FELIX: Hemen bertan ezagutu ginen, Untzagan egiten zen erromerian.

### - Zein abestirekin izan zen gogoratzen duzue?

FELI: Ez, hori ez dut gogoratzen, baina badakit azken abestietan pasodobleak jotzen zituztela beti.

### - Beraz, musikaren laguntza izan zenuen elkar ezagutzeko.

FELI: Sasoi hartan normala zen bikoteak horrela ezagutzea, elkarrekin dantza egitera irten eta hala. Nik 15 urte inguru nituen eta berak 20 inguru, kakaumeak ginen eta bikote moduan hasi ginen... eta horrela ezkondu arte!

### - Guzti guztia ondo joan zen orduan?

FELI: Beno, gure haserreak eduki genituen, gora beherak... badakizu, gazteen kontuak, baina normala dela esango nuke.

FELIX: Edozein bikotek dituen kontuak pasatu genituen.

### - Nolako ezkontza izan zenuten?

FELIX: San Andres parrokian ezkondu ginen.

FELI: Ezkontza polita izan zen, normala sasoi hartarako.



Feli eta Felix Untzaga Jubilatuta Etxeko Felix Elkoroiribe presidentearekin. Ekhi Belar

### - Zein da hainbeste urtetan ezkondua jarraitzeko sekretua?

FELI: Ai, ba zeinek daki! Bikotea maitatzea ezinbestekoa da eta, bestetik, aurrean jartzen zaizkizun egoerei aurre egin behar diezu. Aguantatu, amore eman, moldatu eta beste pertsona ulertu behar duzue batzuetan.

### - Zuk zer diozu, Felix?

FELIX: Berak esan duenarekin bat nator (barreak).

### - Maitasunak bizi-bizi jarraitzen du hainbeste urteren ostean?

FELI: Maitasuna ezinbestekoa da, baina aldatu egiten da maitatzeko modua. Ez da berdina, beste era bateko maitasuna sentitzen da urteak aurrera doazen heinean.

### - Bide honetan, gainera, familia sortu duzue, ezta?

FELI: Hiru seme eta bost iloba ditugu. Se-meak ezkondu eta orain bakarrik bizi gara,

baina eguerdietan sarritan etortzen dira bazkaltzera. Ahal dugun artean, mahai handia ipini eta denok batzen gara.

### - Horrela gustora orduan?

FELI: Nik beti esaten dut, hurrengo bizitzarik badago, dena berdin gertatzea gus-tatuko litzaidakeela, orokorrean behintzat.

### - Zer sentitu duzue Eibarko senar-emazte adintsuenak izateagatik jasotako omenaldian?

FELIX: Oso hunkigarria izan da, malkoak ere atera zaizkit.

FELI: Ez genuen espero, egun batetik besterako kontua izan da. Nahi eta nahi ez etortzeko eta etortzeko esan zidan atzo lagun batek, eta hara nolako sorpresa jaso dugun. Oso polita izan da, gehiegizkoa. Senar-emazte moduan 50 urte bete genituenean José Airasek abesti bat konposatu zuen gure omenez eta abestia jarri dute. Demasa izan da.

Maria Jose Vergara Osa (2018-II-10)



Mundu fionetatik joan arren, beti gogoan izango zaitugu, zure oroitzapen onak hemen bizirik ditugulako.



## LOREA ARAKISTAIN: (PuntuEUSeko komunikazio arduraduna):

# “Makinei ere euskaraz hitz egitea garrantzitsua da”



Euskara eta arlo digitalari buruzko artikulu batek oihartzun handia izan du azken egunotan. Testuaren egilea Lorea Arakistain Aizpiri eibartarra da, PuntuEUS fundazioko komunikazio arduraduna eta ...eta kitto! astekariko kolaboratzailea. Google enpresa erraldoiak euskara ez duela onartzen salatzen du Loreak Sarean.eus webguneko artikulu horretan. Zehatzago esanda, Googlek euskarazko publizitatea atzera botatzen diharduela azaltzen du. Baina zer egin dezakegu norbanako eta komunitate moduan guzti horren aurrean? Zergatik da hain garrantzitsua makinei ere euskaraz hitz egitea?

**- Artikulu horretan Googlek euskaraz egindako publizitatea atzera botatzen diharduela azaltzeaz gain, zure “haserre” adierazten duzu.**

Ez gara konturatzen ingurune digitalean euskarari gertatzen zaionak zer nolako ondorioak edukiko dituen etorkizunean hizkuntzaren normalizazioan. Hiztunen aktibazioan lan asko egiten du euskalgintzak, baina ingurune digitala apur bat ahaztuta geratzen ari da momentu batzuetan. Gure egunerokoaren parte da *on line* egotea eta

parte horretan euskarak atzera egiteak hizkuntzari eragiten dio. Gertatu dena da orain arte Googlek iragarkiak euskaraz onartzen zituela eta orain ez. Martxan zeuden kanpaina asko atzera botatzen hasi da. Tradizionalki komunikabideak izan dira publizitate plataforma garrantzitsuenak, baina gaur egun Google, Twitter, Facebook eta Amazon bera dira publizitate enpresarik handienak eta publizitate gehien fakturatzen dutenak. Jendeak uste du Google bilatzaile bat dela, baina Google benetan publizitate plataforma bat da. Publizitatearen ikuspegitik Googlekin aurrerapausoen zain geunden, eskarietako bat da iragarkiak hizkuntzaren arabera segmentatzeko orduan euskara hautatu ahal izatea. Era berean atea ireki nahi dugu euskarazko hedabideek Googleko iragarkiak jasotzeko. Eta bi aurrerapausu horien zain geundenean, atzera botatuko iragarkien albiste iritsi zaigu, albiste kezagarria eta larria benetan.

**- Nola eragiten die Googleren erabaki horrek euskaraz publizitatea jarri nahi dutenenei?**

Googlen bilaketa egiten dugunean lehen eta bigarren emaitza iragarkiak izaten dira.

**“Hiztunen aktibazioan lan asko egiten du euskalgintzak, baina ingurune digitala apur bat ahaztuta geratzen ari da”**

Hor ezin bada euskararik agertu, lehenengo bi emaitzetan ez da euskararik egongo eta ikusgarritasuna eta lehiakortasuna galduko du iragarleak, edo bestela, erdarara edo frantse-sera joko du. Ondorioz, euskarak galduko du, enpresak zerbitzua eta produktuak beste hizkuntza baten eskaintzen hasiko direlako.

**- Nola konturatu zinen arazo horretaz?**

Badira urte batzuk hainbat webgune iragartzeko erabiltzen dudala Adwords, Ads-Grant programaren bitartez. Modu horretan badakizu bilatzen zaituenak lehenengoan aurkituko zaituela eta ez da gutxi. Abantaila nabarmena da, batez ere, mugikorrekota bilaketetan. Mugikorrean egiten dugun bilaketa bakoitzean bi edo hiru emaitza bistaritzen zaizkigu lehen pantailan eta edozein produktuentzat da garrantzitsua horretan agertzea. Azaroan idatzi zidaten 3 iragarki blokeatu zituztela esateko, eta jakin dut beste hainbat erabiltzailereri ere gertatu zaiela.

**- Zergatik egin dute hau? Azalpenen bat eman dute?**

Erantzun digutena da Googlek ez duela euskara onartzen eta beste hizkuntza baten egin beharko dugula. Googlera joateko asmoa daukagu. Arrazoi asko egon daitezke. Alde batetik errentabilitate kontua izan daiteke. Orain dela urte batzuk Twitterrekin gertatu zitzaigun; kontua zen Twitterrek iragarkiak errebisatzeko pertsonak zituela eta ez zegoen iragarki nahikoa euskaraz pertsona bati ordaintzeko. Beste faktore bat Big Data delakoa izan daiteke. Datu asko dituzte ma-

kinek ikasteko eta euskaraz ez dago bolumen edo datu nahikorik, normalean beste hizkuntza baten egiten baitugu bilaketa. Beste arrazoi bat konfigurazioa izan daiteke. Nabiztaileak eta mugikorrek nabegazio-hizkuntza jakin batean egoten dira konfiguraturuta. Web-guneek erregistratu egiten dute zein hizkuntzatan sartzen garen eta horren arabera erakusten digu edukia hizkuntza batean ala bestean. Momentu honetan euskaldunon %3k daukagu euskaraz konfiguraturuta eta oso gutxi da. Iaz neurketa bat egin genuen eta orain beste bat egin dugu. Aurten datuak iazkoak baino txarragoak dira. Mugikorraren erabilerak gora egiten duen heinean datu horiek behera egin dute. Ordenadoreak urteak irauten ditu eta nabigatzailea euskaraz konfiguratzeko baduzu horrela lagatzen duzu luzaroan. Baina mugikorrek oso sarri aldatzen ditugu, eta, nahiz eta kanpainak egin, mugikorra aldatzen duzunean gero ez duzu berriro euskaraz jartzen.

**- Beraz, norbanakoek badaukagu guzti honetan ardura. Gure esku dago gure gaitutako hizkuntza aukeratzeko.**

Tabernetan edo dendetan sartzen garen lehen hitz hori euskaraz egiteko arduraren hartzan dugun bezala, norbanakoek ordenagailu eta mugikorrek gauza bera egin beharko genuke. Gure ardura da eta oso erraza: aplikazio batzuk daude, eta oso erraz instalatzen dira. Iazko *Lehen hitza* kanpainak ondo funtzionatu zuen, 10.000 deskarga izan zituen, baina arazoa da askotan aldatzen dugula telefonoz eta ez diogula gai honi daukan garrantzia ematen. Lantoki eta udaletan ere horrelako erabakiak hartu be-



PuntuEUS fundazioaren helburua ingurune digitalean euskara beste hizkuntzen mailan kokatzea da. Horretarako domeinua da tresna nagusia, euskarazko edukari balioa eta ikusgarritasuna ematen diolako, baina beste proiektu asko ere badituzte. Iaz **LEHEN HITZA** kanpaina jarri zuten martxan. Interneten ere lehenengo hitza euskaraz izateak garrantzi handia dauka. Nabigazio-hizkuntza konfiguratzeko eta euskara lehenestea oso garrantzitsua da. Izan ere, nabigatzailearen hizkuntzak esaten dio munduari zein den gure lehenengo hizkuntza.

harko lirareteke. Horrez gain, beste eskaera batzuk egin behar dira. Gauza bat da txikiak izatea eta beste bat eskubiderik ez izatea. Euskara beste hizkuntzen mailan egon behar da, eskubide berdinekin. Google eta hauekin gertatzen dena da ez dagoela in-terlokuzioa antolatuta eurekin. Komeni da elkartuta eta antolatuta joatea eta eskari zerranda osoarekin. Guk gaia Euskararen Aholku Batzordera eramango dugu hilabete honetan, ingurune digitaleko lantaldera, hain zuzen. Uste dugu hausnarketetatik

***“Tabernetan edo dendetan sartzen garenean lehen hitz hori euskaraz egiteko ardura hartzen dugun bezala, ordenagailu eta mugikorrek gauza bera egin beharko genuke”***

eta analisisietatik harago ekintza-plan batekin atera behar garela handik. Herrialde askotan, Danimarkan esaterako, enbajadore digitalaren figura ari dira sortzen euren interesak defendatzeko eta eskubideak aldarrikatzeko. Lobby lana egin behar da, azken finean. Norbaitek gogoratu egin behar die txikiak garela baina hemen gaudela. Eta erakundeek ere hemen zeresan handia daukate.

**- Aipatu duzun moduan, Twitter sare sozialarekin antzerako zerbitu gertatu zen orain dela urte batzuk.**

Twitter txikiagoa da, baina hara joan ginen anuntzioak blokeatzen hasi zirenean. Tarteko formula bat topatu genuen eta euskaraz publizitatea egin nahi duenak puntuEUSen kontuaren bitartez egin ahal du. 15 hizkuntzatan egin daiteke publizitatea Twitterren, eta euskaraz ere bai, sistema berezi horren bitartez. Beraz, kontua ez da Googleri kontra egitea, Googlekin elkarlanean aritzea baino, eta behar izanez gero, gure laguntza eskaintzea.



**- Autokarabanen, karabanen eta furgoneten salmenta, alokairua eta konponketa**

- Denbora luzerako parking-a, garbiketa-gunea eta ur-kargalanak

- Ibilgailu mota guztiendako tailer-zerbitzua

- Karabanin eta kanpin osagai-denda

- Homologazioak, kanperizazioak...

- 4.000 m<sup>2</sup>-tik gorako instalazioak



**Itxaspe Auzoa, 3 - ITZIAR**

**943 05 08 03 - 664 68 58 97**

**www.inercaravan.eus**



**EIBARKO  
HIZKUNTZA ESKOLA  
OFIZIALA**

**Jardiñeta, 3  
20600 Eibar**

**MATRIKULA LIBREA  
Otsailaren 15etik 28ra**

**ALEMANA, EUSKARA,  
FRANTSESA eta INGELESA**

**MATRIKULA EGITEKO:**  
**www.eoieibarheo.hezkuntza.net**

**ARGIBIDE GEHIAGO:** **eoieibarheo@gmail.com**  
**943.20.06.18**



**JOSE VILA:** "Lindaritik".



Hiru seme-alaba edo gehiago (edo bi, bietako bat elbarritua bada) dituztenak dira kide ugariko familiak. Horrelako 24.600 familia daude Euskadin gaur egun eta horretako 8.000 Hirukideren barruan daude (44.000 lagun guztira). Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarten Federazioa da Hirukide eta kolektibo honen eskubideak defendatzea du helburu 1999an sortu zenetik. Datorren martitzenean, hilaren 20an, federaziokoek hitzaldia eskainiko dute 18:00etan Portalean.

# Kide ugariko familiei deialdia Portalean

**K**ide ugariko familiek (edo izan behar dutenek) eskura dituzten zerbitzu eta laguntzen berri jasotzeko aukera egongo da martitzenean Portalean. Hirukidek bere ekintzen berri emango du, eta diru-laguntza eta hobarien informazio zehatza eskainiko du familien iradokizun eta erreklamazioak jasotzeaz gain. Hiruki-

dek kide ugariko familien batasuna aldarrikatzen du, euren ahotsa gehiago entzungo delako horrela. Azken urteotan hainbat berrietasun egon dira kolektibo honen inguruan, "eta kide ugariko familia batzuek ez dituzte ezagutzen", Hirukideren berbetan. Batetik, pasaporte- eta NAN-tasak ordaintzeko sal-

buespena dago. 2017az geroztik NAN edo pasaporteak eskuratu nahi duten kide ugariko familiako kideek doan egin ditzakete euren prozedimenduak, "dokumentu ofizial hauek lortzeko tasak ordaindu barik". Kide ugariko familien baldintza legalari eusteko luzapena sartu zen indarrean iaz. Horren ondorioz, familiek titulu hori izango dute euren seme-alaba gazteenak legean ezarritako adina bete arte (21 urte edo 26, ikasketekin edo formakuntzarekin jarraitzen badu). Errekeritutako gehieneko adina gainditzen duten seme-alaba nagusienak titulutik irteten joango dira, baina familiako beste kideek tituluari eutsiko diote seme-alaba gazteenak gehieneko adina bete arte.

ruan egon den beste berrietasun bat pentsioetan amatasunagatik ematen den osagarria da. Iaz onartu zen neurria da eta, honen bitartez, gutxienez bi haur izan dituzten emakume langileek amatasun osagarria jasoko dute euren pentsioarekin. Bi haur izan duten emakume langileek %5eko igoera izango dute, hiru ume eduki dutenek %10ekoa, eta lau ume edo gehiago izan duten jubilatutako emakumeek %15eko igoera izango dute.

**Batuta ekitearen indarra**  
 "Batasunak indartsu egiten gaitu", diote Hirukidekoek. "Zenbat eta familia gehiagok osatu Hirukide, orduan eta handiagoa izango da gure gaitasuna administrazioekin eta erakundeekin negoziatzeko, gure eskubideak babesteko eta kide ugariko familia jendartean eduki behar duen tokian jartzeko", euren berbetan. Horretarako, bazkide egiteko gonbidapena luzatu nahi die Eibarko kide ugariko familiei eta euren webgunea utzi dute eskura horretarako (www.hirukide.com). Informazio gehiagorako, hirukide@hirukide.com helbidera idatzi edo 945 25 36 02 telefonora deitu daiteke.

## Kide ugariko familia zarete?

Zatozte zuen elkarteaz ezagutzera

Kide Ugariko Familien Elkarten Federazioa  
Federación de Familias Numerosas de Euzkadi

ETA EZAGUTU:

- Zuen eskubideak kide ugariko familia zaren heinean
- Zuen abantailak Hirukideko familia zaren heinean
- Gure zerbitzu eta jarduerak guztiak

Gainera, zuen aldarrikapenak jakin nahi ditugu

Eta opari bat eramán ahal izango duzue

Informazio gehiago:  
hirukide@hirukide.com  
945 25 36 02

AURKEZPENA EIBARREN:

Eibarko inguruko herrietako kide ugariko familientzat

EGUNA: Asteartea, otsailak 20

ORDUA: 18:00etatik 19:30etara

LEKUA: Portalea Kultur Etxea (Bista-Eder Kalea, 10)

Kide Ugariko Familien Elkarten Federazioa  
Federación de Familias Numerosas de Euzkadi

Y DESCUBRIR:

- Vuestros derechos como familia numerosa
- Vuestros ventajas como familia de Hirukide
- Todos nuestros servicios y actividades

Además, queremos conocer vuestras reivindicaciones

Y podréis llevaros un detalle

Más información:  
hirukide@hirukide.com  
945 25 36 02

PRESENTACIÓN EN EIBAR:

Para familias numerosas de Eibar y municipios de alrededor

DÍA: Martes, 20 de febrero

HORA: 18:00 a 19:30 horas

LUGAR: Casa de Cultura Portalea (C/ Bista Eder, 10)

## Ane San Martin (Ipurua taldeko gimnasta)

“Gurea ez da **nesken kirola** bakarrik; izan dira eta badira praktikatzen duten **mutilak**”


6 urterekin hasi zen gimnasia erritmikoa egiten eta aurtengoa izan daiteke bere azken denboraldia, “Bartzelonara joango naizelako ikastera”. Ondo jakin izan du kirol modalitate horrek eskatzen zion esfortzua ikasketekin tartekatzen eta Ingeniaritza Elektrikoa ikasi du: “Egun osoko jardunetarik deskonektatzeko ere baliagarria izan zait entrenatzea”. Erritmikoaren zapoak entrenatzaile izatera ere bideratu dezake Ane agian: “Hiru urte daramatzat prestatzen”. Eta Ipuruako gazteenekin badu itxaropenik: “Urrun helduko direla uste dut”.

**- Ipuruako nagusienetakoa izanda, zenbat urte daramatzazu gimnasia erritmikoa praktikatzen?**

21 ditut eta aurten 16 beteko dira hasi nintzela. Ikasketak direla-eta, seguruenik azkena izango da, kanpora joateko asmoa dudalako. Azken lau urteetan, gainera, maila indibidualean lehiatu izan dut batez ere, entrenamenduetan ere nire kabuz ibili naizelako. Ikasketak direla-eta ezin izan naiz taldekideekin konprometitu; horregatik, entrenamenduak ihesbide-balbula ere izan dira askotan niretzat.

**- Azken denboraldia baduzu, zein asmorekin ekin diozu? Erronkarik bai?**

Amateur mailan lehiatzen dut eta neure buruarekin gozatzeko asmoa dut. Gustatuko litzaidake Euskadiko txapelketan zezoz egitea eta banabil prestatzen, bi aparatuekin. Batez ere, behin baino gehiago-



tan gauzak ez zaizkidalako oso ondo irten Euskadikoan; Gipuzkoakoan hobeto moldatu izan naiz.

**- Ez da kirol erraza zuena. Eguneroko, denbora luzeko ahalegina, minutu eta erdiko ariketan ipintzen duzue jokoan...**

Bai, ezin daiteke beste kirol batzuekin konparatu. Horrek zure saioari urduri ekittea dakar; hori ezin da saihestu. Asko duzu jokoan, hurrengo txapelketan parte hartzea edo ez... Aldi berean, jakin behar duzu aparatu batek eskutik ihes egiten badi-ze ere, espresioarekin jokatzeko eta ariketa ahal den hobeto amaitzen.

**- Baduzu gustoko aparatuek?**

Mazak eta uztaiak. Txikitatik egin zaizkit errazago, akaso ikusgarriagoak direlako. Pilota ere gustokoa dut, baina botea dela-eta arriskutsuagoa da.

**- Noiz geratu zara beteta zure jardunarekin? Zein izan da zure egun onena?**

Badira sei urte, Gipuzkoako txapelketetan: xingolarekin irabazi egin nuen, uztaiarekin bigarren eta sailkapen orokorrean ere azpitxapeladun. Taldeka ere ondo ibili ginen, eta denboraldi hartan Euskadiko txapela lortu genuen.

**- Zer du gimnasiaren alderik onena? Zer du hain gustoko ez duzuna?**

Onena, zalantza barik, sortzen dugun giroa. Gure artean lehiatu behar badugu ere, lagunak gara, hor ez dago etsairik. Txarrena? Luzaketak. Adinarekin, gainera, gero eta gehiago kostatzen zaizu.

**- Komunikabideok zelan tratatzen zaituztegu? Baduzue errekonozimendurik?**

Orokorrean ez gaituzue kirol moduan hartzen; askok uste dute gurea dantza dela bakarrik. Horrekin lotuta, nesken kirola balitz moduan ulertzen da, eta badira mutilak egiten dutenak.

**- Beharrezkoa da makillatuta irtetzea? Zenbat denbora eskatzen dizue horrek?**

Ez dago estipulatuta, baina estetikoki egokiagoa da; kontrakoa arraroa egingo zen. Margotu eta mototsa egin, 10 minutu.

## Tantanez Tantan jaialdiaren inguruko bideo-lehiaketa antolatu dute

**E**ibarko euskalgintzaren ekimenez eta Eibarren AKEBAIk babestuta, Tantanez Tantan edo "gantxi-laren jai" ospatuko dugu maiatzaren 19an. Aurten, baina, ekitaldiari buruzko informazioa zabaltzeko bideo lehiaketa egitea pentsatu dute antolatzaileek eta asmo horrekin abiatu dute I. Tantanez Tantan bideo lehiaketa.

Eibarko DBH 3. eta 4. mailako eta batxilergoko ikasleek izango dute parte hartzeko aukera. Horretarako asko jota 30 segundoko iraupena duen bi-

deoa grabatu beharko dute, euskeraz. Horrez gain, asmoa bideoak ekitaldiaren promoziorako erabiltzea denez, lehiaketara aurkezten diren bideoetan hainbat datu derrigorrez aipatu beharko dira: ekitaldia izango den eguna (maiatzak 19), ordua (13:00ean hasiko da), gantxilak eskurik esku beteko duen ibilbidea (Urkizutik Untzagara) eta, jakina, Tantanez Tantan ekimeneko protagonista den gantxila.

Bideoak martxoaren 21erako entregatu beharko dira, elkarte@etakitto.eus helbidera bidalita (artxiboa atxikitu edo, bestela, bideorako lotura bidali). Lehiaketara aurkezten diren lan guztien artean, 3 bideo onenentzat saria (talde-afaria) egongo da. Eta, horrez gain, antolatzaileek jasotako bideo guztiak ekitaldiaren zabalkunderako erabiliko dira, baldin eta eskatutako baldintza guztiak betetzen badituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero 943200918 telefono zenbakira deitu dezakezue. Animatu parte hartzera, saria irabaz dezakezue eta, gainera, zuen bi-



**I. BIDEO LEHIAKETA**

**TANTANEZ TANTAN**

**EIBARKO DBH 3-4 eta BATXILERGOKO ikasleentzat**

Antolatzailea: **Eibarko Euskalgintza**

Erabiltzailea: **AKEBAI**

*Oinarriak ikastetxeetan*

deoekin euskeraren alde antolatzen den Tantanez Tantan jaialdia ezagutzera ematen lagunduko duzue!



**Radio Eibar**

CADENA **SER**

**104,0 FM**

*Isadi*

**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**centro médico eibar**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreak / 1. solairua  
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1) Kardiologia	10) Barne Medikuntza
2) Zirugia	11) Radiologia
3) Dermatologia	12) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	13) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	14) Koloproktologia
6) Ortodontzia	15) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	16) Foto-depilazio Unitatea
8) Pediatria	17) Ginekologia <b>BERRIA</b>
9) Psikiatria	18) Psikologia <b>BERRIA</b>

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,**  
euskaratik gaztelerara,  
gazteleratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.

**ZERBITZUA**  
elkarte@etakitto.eus

Aspaldiko partez aurtengo Aratostiak hotz eta euri artian ospatzea tokau jaku, baiña, halanda be, gitxi gorabehera aurreikusitta eguan programaziñuari jarraitu jako, aldaketa txiki batzurekin: Eguen Zurixan kalejira bertan behera laga eben eta ikasliak eskola barruan ospatu zittuen euren jaialdixak. Barixaku illuntzian Hungariatik etorritako kaldereruek euripian egin eben Urkizutik Untzagarañoko bidia eta zapatuan, orduan be eurixa zala-eta, kuadrillen kalejira bertan behera laga behar izan zan. Dana dala lehiaketarako izena emon eben taldiak karpa barruan, inprobisautako desfilean erakutsi zittuen euren koko-jantzixak eta sarixa 'Tlaxcalixtlahuacako hildakuak' kuadrillak irabazi eban. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik egin zan play-back lehiaketako gaztien dantzak eta DJ Arnoren musikiak Aratoste Domekako arratsaldia girotu eben. Eta urteroko moduan, Aratoste Martitzenian agurtu genduazen jaixak. Hori bai, jolasak, "sardiñaren entieru txikixa" eta dantzak, dana karpa barruan egin bihar izan zan, eurixak ez eban-eta atsedenk emon.

Aratosteetako argazkixekin osatu dittugun albumak ikusteko, sartu [etakitto.eus](http://etakitto.eus) orrixan, mediateka atalian.

ARGAZKIAK:  
Maialen  
Belaustegi

# Hotz eta euri artian be aurpegi alaixak nagusi







## Gizakia klonatzen geroz eta hurbilago

Aurreko urtea ardiei buruz idazten agurtu nuen eta hasi berri dugun honetako albiste garrantzitsuenaren abiapuntua ere ardiak izango dira. Gogoratzen al duzue Dolly ardia? Dolly klonaturiko lehenengo animalia izan zen. Orduz geroztik teknika berbera erabilia 23 animalia espezie inguru klonatu dira, besteak beste txerriak, zaldiak, saguak edo txakurrak. Baina genetikoki gizakiaren antzeko animaliak klonatzea ezinezkoa izan da duela egun gutxira arte: Shangaiko ikerketa talde batek buztan luzedun makakoa klonatzea lortu du, Dolly ardiarekin erabili zuten teknika berberarekin.



Zhong Zhong eta Hua Hua albisteko protagonistak

Teknika honetan obulu baten nukleoa (material genetikoa edo ADN-a dagoen leku) kendu eta gorputzeko ehun baten zelularen nukleoz ordezkatzen da. Ondoren obulu hori estimulatu egiten da enbrioi bihurtu dadin, eta eme bati umetokian ezartzen zaio, haurdunaldia era naturalean garatuz, umea jaio arte.

Klonazio horrekin lortutako emaitza bi tximu guztiz berdinak dira, animalia eredu gisa erabili daitezkeenak funtzio fisiologikoak eta giza gaixotasunak era sakonago batean aztertzeko. Gainera, giza gaixotasunen tratamendu terapeutikoak garatzeko oinarri modura ere erabilgarriak izan daitezkeela azaldu dute ikertzaileek, minbizian edota gaixotasun immunologiko edo metabolikoetan adibidez.

Baina albiste zientifiko askorekin bezala, eztabaida etiko ikaragarria piztu da, alde batetik, gizakitik hain hurbil dauden espezieen klonazioak dakartzan arriskuengatik eta bestetik, prozesuaren eraginkortasun txarragatik. Izan ere, jatorriz-



iratxe muñoz  
IKERTZAILEA

ko 127 obuluetatik, 79 enbrioi besterik ez ziren garatu. Hauek, 21 emeri ezarri zitzaizkien umetokian eta horietatik 2 bakarrik iritsi dira jaiotza osasuntsuak izatera. Beraz, argi dago oraindik ere lan asko dutela primateetan prozesuaren arrakasta bermatu aurretik.

*Albistean gehiago sakondu nahi duenak, "Cell" aldizkari zientifikoan eskuragarri du artikulua (DOI:10.1016/j.cell.2018.01.020).*

## Digitalizazio aroaren argi eta itzalak

Nire lehenengo kolaborazio honetan Gauzen Internet-eri buruz (ingelesez *Internet of Things* edo IoT deritzona) jardungo dut. Azken aldian askotan entzuten ditugu horren ingurukoak (nik larregi ere bai) eta zer den eta zertarako argitzea ahalegina egingo dut. Hasteko, kontzeptu horren azalpenaz baliatuko naiz beste kontzeptu teknologiko batzuk aurkezteko. Horrela, hurrengo kolaborazioe-



jon legarda

DEUSTOTECH-EKO IKERLARIA

tan azalduko dizuedan gauzei buruzko sarriera bihurtuko da idazki hau.

Internet kontzeptua ongi onartua daukagu aspalditik. Gure ordenagailuak, finakoak zein mugikorrak izan, bata bestea erekin dihardute berba eta berba. Baina azken denboraldian ordenagailuak ez diren beste gauza batzuk ere ari gara Internetera konektatzen: adibidez, autoak, trenak edo zabor-erakundeak. Gure bizitzan ohikoak diren gauza askok dihardute bat-batean Internetera datuak bidaltzen. Printzipioz, guzti horren helburua gure bizitza hobetzea da, gure ingurumena zaintzea, edo gure enpresak aurreratzea. Edonork pentsa dezake errealitateari buruzko informazio gehiago izan ezker, errealitate horren kudeaketa era hobekoan egin daitekeela. Baina teoriarik hain erraz ulertzen den kontzeptua praktikan jartzea ez da hain erraza.

Alde batetik, informazioa nola irakurri eta bidali ez delako beti erraza, ezta merkea ere izaten: informazioak ez digulako edozein modutan balio, datuen maiztasuna ez delako nahikoa, edo beharrezkoa dugun fidagarritasuna ez delako behar be-

zain sendoa. Kasu askotan, edozein ordenagailurekin bezala, Internetera konektatuak dauden gauzek segurtasun arazoak eduki ditzakete, eta Cyber-segurtasun teknologien eskuetan jarri behar ditugu.

Beste alde batetik, informazio gehiegi jasotzen baldin badugu, gerta daiteke ezin kudeatzea behar den moduan egitea, eta izan dezakegun ondorioa izatea guk nahi genuen onura baino okerragoa. Horretarako BIG DATA deritzon teknologiak ari dira garatzen.

Behin datuak gure esku izan ondoren, ezagueran bihurtu behar ditugu; horretarako, inteligentzia artifizialaren teknikak erabiltzen dihardugu. Pentsa errealitatean ditugun informazio-iturri guztiekin, denak desberdinak izanda, eta gero eta gehiago edukita, errealitate horren ezaguera zehatzagoa izan daitekeela. Informazio-iturri hain desberdinak batera kudeatzeko behar ditugu teknologia sofistikatu horiek.

Ikusi dezakezue gaur egun hain modakoak diren teknologiak zelan dauden lotuta bata bestea erekin. Ea gai naizen, hurrengo ataletan, adibide praktiko bidez euren onurak eta arriskuak azaltzen.

## Biharko Eibar-Bartzelonak bi joko-estilo guztiz desberdinak jarriko ditu lehian, nor baino nor

Foballak ematen dituen datu bitxiaren artean kokatu dezakegu honako hau ere: aurreko asteburura arte Mendilibarren taldea izan da Liga Santanderren aurkariaren areara erdiraketa gehien bidali dituen, Real Madrilak baino gehiago: eibartarrek 594 eginak zituzten, eta madrildarrek 556. Gutxienez erdiratzen duen taldea zein den? Bartzelona liderra, 237 erdiraketekin. Azken horiek jokatzeko beste estilo bat dute eta, horren eraginez, erdiraketak baino gehiago barneraketak lehenesten dituzte. Kataluniarren aldetik gehien erdiratu duena Jordi Alba da, 26 erdiraketekin. Kopuru hori txiki lagatzen du sailkapen horretan nagusia denak: Jose Angel "Cote" Eibarko ezker hegalekoak 145 erdiraketa ditu eginak. Presioa ondo egiteaz gain, baldioak area inguruan ipintzen ere fin dabilta lpuuakoak.

### Epaile "ofiziala"

Bada beste datu aipagarririk kataluniarren eta eibartarren arteko partidua jokatu aurretik. Berezia baino zeozer gehiago bihurtu den bitxitasuna ere ekarriko digulako: Jose Alejandro Hernandez Hernandez izango da neurketaren epaile hirugarrenez jarraian. Orain arte Eibarren aurkako penaltiak adierazteko erraztasuna erakutsi du, eta horrek ez du ezer onik iragartzen.



Cote ezker hegaleko atzelaria da ligako erdiratzaile saiatuena.

### Partidurik galdu gabe

Bartzelona da bakarria partidurik galdu gabe 1. Mailan; horrez gain, etxetik kanpo jokatuak hamabi partiduetatik bederatzira bazi ditu. Horregatik, adierazgarria da kanpoan etxean baino puntu gehiago lortu izana: 30 kanpoan, 29 Camp Nou-n. Bihar 16:15ean jokatu den partidurako lpuua beteta egotea espero da eta partiduen aurretik hainbat ekitaldi antolatu ditu Eskozia la Bravak. Horrela, txosna jarriko dute Untzagan (udaletxeko arkupetan euria bada) goizeko 11:00etatik bazkaltzeko ordura arte, 14:45era, eta bertan pintxoak eta edariak salduko dituzte. Giroa alaitzeko, Dj Kurroren musika izango da eta parte-hartzaileen artean Eibar-Villarreal partidurako sarrera bi zozketatuko dira. Ea balentriarik ospatzeko aukerarekin topo egiten dugun biharkoan!

## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

Eibar - Bartzelona (bihar, 16:15)

#### Emakumezkoen 2. Maila

Eibar - Mulier (etzi, 12:30)

#### 2. B Maila

Mirandes - Vitoria (etzi, 17:00)

#### Emakumezkoen Lurralde Maila

Eibar - Lagun Onak (etzi, 18:00)

#### Erregional Gorengo Maila

Eibar Urko - Lagun Onak (etzi, 19:00)

#### 1. Erregionala

Ikasberri - Urki (bihar, 16:30)

Eibartarrak - Intxurre (bihar, 19:15)

### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Alaves (etzi, 16:45)

### KADETEAK

#### Euskadiko Liga

Eibar - Alaves (bihar, 13:45)

### ESKUBALOA

#### 1. Nazional Maila

Beti-Onak - Somos Eibar (bihar, 20:00)

#### Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa

Avia Eibar - Ordizia Irurena (bihar, 17:30)

#### Gipuzkoako 1. Maila

Egia Kosko - Haritza (bihar, 18:30)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

Oviedo - Avia Eibar Rugby (bihar, 16:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Avia Eibar - La Unica (etzi, 12:00)

### SASKIBALOA

#### 1. Nazional Maila

Katu Kale - Antigua-Luberri (bihar, 18:15)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

CW Donostia - Urbat (bihar, 18:45)

#### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Getxo (bihar, 20:50)

- SUKALDEAK
- BAINUAK
- ETXEKO ALTZARIAK



**ASKETA**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA  
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



PROMOZIO BEREZIA  
**%10eko deskontua**  
ALTZARIETAN

Galdetu baldintzak dendan

Errebal, 16 943-509027

asketa.mueblesdica.es

lorentzo.asketa@gmail.com

## Odei Jainaga atletak marka berria egin du, Euskadiko absolutua oraingoan

Odei Jainaga Eibarko xabalina-jaurtizaleak Euskadiko marka hautsi eta berria ezarri zuen aurreko domekan xabalina 77,90 metrotara jaurti ondoren, eta Espainiako errekorrengandik metro eskasera geratu da (78,88 metrotan dago azken hori). Jainagak anbizio handiarekin ekin dio urte berriari eta, euripean lehiatu bazuen ere, berehala iritsi dira emaitzak. *"Zapore gazi-goza geratu zait: marka hobetu dut, baina ahal bezain ondo egi-*

*nez gero 80 metrotara iritsiko ninteke"*, adierazi zuen Jainagak lehiatu eta gero. Urtarrilean egin genion elkarrizketan adierazi zigun bezala, minduta dabil atleta eibartarra. *"Mina ez da desagertu, baina horrekin lehiatu ahal naiz"*, adierazi zuen domekan ere. 80 metrotara heltzea da eibartarraren helburuetako bat eta metro horiek gaingitu beharko ditu abuztuan Berlinen egingo den Europako Txapelketan lehiatu nahi badu.



## Asteburu bikaina izan zuten Eibar Eskubaloiko senior mailako taldeak



Haritzak garaipen erraza eskuratu zuen Leizaranen aurrean.

Egutegi laburra izan zuten aurreko asteburuan Eibar Eskubaloiko taldeak, senior mailako hirurak bakarrik jokatu zutelako; harrobiko talde guztiek jai izan zuten. Eta hirutik, beste hainbeste garaipen. Gizonezkoen taldeek lpurua kiroldegian jokatu zuten eta izan zen emoziorik ere, 1. Nazional Mailako Somos-en kasuan, bi segundoren faltan Azkonizagaren jaurtiketa batek ipini zuelako behinbetiko 31-30 markagailuan.

Lehen zatian izandako baloi galek eibartarrek atsedenaldira hiru gol azpitik joatea ekarri zuen; bigarren zatian asko hobetu zuten jokoa, eta horrek partiduari buelta ematea ahabidetu zuen. Aurretik, probintziako 1. Mailako partiduan, Haritza erraz nagusitu zitzaion Leizarani: 38-24. Eta Legazpin jokatu zuen emakumezkoen Avia Eibarko taldeak garaipen sendoa eskuratu zuen Euskadiko Txapelketaren barruan.

## Deltecoko bi ordezkari sarituta euskal triatloi eta duatloi zirkuitoan

Aurreko asteko zapatuan egin zen euskal triatloi eta duatloi zirkuitoaren sari-banaketan, Delteco Eibar Triatloiko Gonzalo Saenzek eta Roberto Gartzia duatloiko beterranoen mailako lehen eta bigarren postuei zegoen sariak jaso zituzten, hurrenez hurren. Bestalde, bihar hasiko da euskal zirkuitoaren duatloi denboraldia Sopelan eta, hemen dik bi astera, martxoaren 3an, jo-

katuko da Eibarko Duatloien 27. edizioa. Proba hori arratsaldeko 16:45ean hasiko da eta, antxitxiketan 5 kilometro egin ondoren, 18 beteko dituzte bizikleta gainean berriro oinez beste bi eta erdi osatu aurretik.

Pello Osorok bere sasoi onari eusten dio eta, Soriako Numantzia jokatu Espainiako Kopako distantzia luzeko duatloian, podiumaren hirugarren kaxoira igo zen. Eibartarrak 2:34:04ko denbora behar izan zuen 9 kilometro korrika, 55 bizikleta gainean eta beste 9 antxitxiketan egiteko.

### Ane Ziaran Espainiako txapeldun taldeka

Saltoki talde nafarrarekin parte hartzen duen Eibarko atletak taldekako Espainiako txapela jantzi zuen Anson jokatu neguko triatloi txapelketan.



## Errugbiko talde nagusiak irabazle azken jardunaldian

Emakumezkoen taldeak gogor ekin dio Ohorezko B Mailara igotzea helburu duen denboraldiko bigarren faseari eta, Unben jokatu neuroketan, 43-7 gailendu zitzaion Gernikari. Amaiur Mayok 15 puntu eskuratu zituen, Jones 10 eta Aleuk 8. Hurrengo erronka domeka honetan bertan izango dute, oraingoan ere Unben, lehen faseko ligan nagusi izan zen La Unicaren kontra. Gizonezkoen lehen taldeak emaitza motzarekin irabazi zion Kaleido Universidad de Vigo taldeari, 10-3 amaitu baitzen norgehiagoka.

Bestalde, eta harrobiari begira, Gipuzkoako 14 urtetik beherako selekzioak Eibar Rugby Taldeko hiru jokalarit deitu ditu bihar Senperen egingo den Côte Basque topaketan. Nesken taldeko Maria Sambu eta Carolina Ribereorekin izango da bertan mutilen taldeko Pello Diez. Cristina Gutin entrenatzailea ere deialdian izango da.

## Xakeko bigarren taldea lidergoan Mekatar-Elgoibarrekin berdinduta

Azken jardunaldia ez zen txarra izan Klub Deportiboko xake taldeentzat: Gipuzkoako 1. Mailan jokatzeko duen talde nagusiak bina berdindu zuen Baionan (Jon Aranak irabazitako eta J. Antonio Garridok eta Mikel Larreategik berdindutako partidei esker) eta 3. Mailan jokatzeko duen bigarren taldeak 3-1 irabazi zion Bergara B-ri (Xabier eta Aitor Beorlegik eta Oier Garciak lortutako garaipenekin). Emaizta horiekin, azken hauek sailkapeneko lidergoan daude, Mekatar-Elgoibar B-rekin berdinduta; baina ez da gauza bera gertatzen 1. Mailako taldearekin, hau azkenaurreko postuan dagoelako. Aukera polita izango du aurrera egiteko bihar Donostian sailkapeneko azkena izango baitu aurkari, eibartarrak baino puntu eta erdi gutxiago duen Gros E taldea. Eibar B-k Deporren jokatu du bihar arratsaldean sailkapenean hiru puntura duen Mekatar-Elgoibar C taldearen aurka.



## Manu Agirrek egindako ibilbidearen saria jaso zuen Kirolaren Galan

Aurreko astean Donostiako Aquariumean egindako ekitaldian, probintziako kirol federazio guztiek parte hartu zuten Gipuzkoako Kirolaren Gala egin zen, 2017. urteari zegozkien sariak banatzeko jardunaldian. 44 kirolari eta klub saritu ziren guztira, tartean Manu Agirre, judo modalitatean egindako ibilbidearengatik. Argazkian, Agirre saria jasotzen Oscar Murillo Afedegui Gipuzkoako Federazioen Batasuneko presidentearen eskutik.



## Hiru ordutan egiteko negu-trail erraza prestatu dute hilaren 25erako

Klub Deportiboko mendi batzordeko Trail atalak Negutraila antolatu du datorren asteko domekarako. Goizeko 08:30ean hasiko dute eguna, jarraian 17 kilometro betetzeko 725 metroko goranzko desnibela duen ibilbidean. Hala ere,

*“zailtasun-mailari erreparatuz, erraza da eta 3 bat ordutan egitekoa”, antolatzaileen esanetan. Ahalegin berezia egin dute horretan, “azkeneko ekaitz eta elurteen ondorioz, hainbat bide eta mendizidor erorirako zuhaitzez itxita daudelako”. Azke-*

nean, baina, lortu dute *“ibilbide desberdin eta zailtasunik gabekoa”* proposatzea. Parte hartu nahi duena *“animatu dadila izena ematera”* honako helbidean: [kalamuakorrikalaritaldea@gmail](mailto:kalamuakorrikalaritaldea@gmail)

Toribio Etxebarria kaletik abiatuta, parte-hartzaileek Amañako paseotik Ibur-errekara joko dute, autopista gainetik Eitzagara doan bidea hartuko, Aixolako presara igo, eta gero Egoarbitzako lepora (*“eguraldiak lagunduz, tontorra egiteko aprobeztatuko dugu”*). Hortik Karabetara jaitsiko dira eta, Azkonabieta atzetik doan pista jarraituz, Arraotzen irteteko. Behin Azurtzara jaitsita, Unbera helduko dira ohiko bidetik eta, jakina, hortik Deporrerako *“hel-muga”* bilatuko dute. 17 kilometro gertuko dira atzean.



## Honoka Yonei japoniarrak Eibar FT-ren lehen ekipoarekin jokatu du

Aurrendenboraldia ere eibartarrekin egin zuen Honoka Yoneik eta orain 2. Mailako taldearekin sinatu du kontratua denboraldia amaitu arte. Hori bai, tramite burokratikoak amaitu arte Lurralde Mailan parte hartzen duen emakumezkoen bigarren taldearekin jokatu du. Azken talde hau lider doa orain dela hiru aste hasitako iguera fasean. Japoniarra Fukushima JFA Academy taldetik dator, erdilari-aurrelaria da eta bere herriko selekzioarekin jokatzeko du, 19 urtetik behar duen taldearekin.



## Gol zaparrada foball-zaletuaren azken jardunaldian

Aratosteek golak ekarri zituzten erreparorik gabe Unben jokatu duen azken jardunaldian eta guztira 39 sartu ziren. Hala ere, bi neurketak bakarrik izan zituzten atentzioa deitzen duten tankerako emaitzak: Ipur Sagardotegiak Sporting Larragest-i endosatutako 10-0koa eta L.P. Machado Tanke-mans-ek Alkidebari *“oparitutako”* 9-0koa. Bar Txokok, gainera, lidergoa sendotu du Garajes Garcia bigarren sailkatuak galdutako Durango-rekin; orain Azkena Adahi igo da bigarren postura.

### ASTE BURUKO JARDUNALDIA

#### KirolBet Liga

Bar Areto - Azkena Adahi (bihar, 09:00)  
Sporting Larragest - Durango (bihar, 09:00)  
Alkideba - Bar Txoko (bihar, 10:30)  
Slow XOK - L.P. Tankemans (bihar, 12:00)  
Bar Arkupe - Feredu Solutions (etzi, 09:00)  
Ipur Sagardotegiak - Esmorga (etzi, 09:00)  
Reformas Hiru - Garaj. Garcia (etzi, 10:30)

Kantatzen duen herri bat ez bada hiltzen, Euskal Herria bizi-bizirik dago. Euskaldunok musika bidaide izan dugu historian zehar, eta ibilbide horren ikuspuntu umoretsu eta ironikoa kontatuko digu Tartean Teatro konpainiak otsailaren 21ean 20:30ean Coliseoan 'Ez dok hiru' antzezlanean. Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreekin barre algarak ziurtatuta daude.

**- Euskal musikaren B aldea kontatuko diguzue antzezlanean?**

Ikuskizunean erabiltzen ditugun kantak ezagunak dira, horien gainean umorea egiten dugulako. Umorea egiteko garrantzitsua da zertaz ari zaren jakitea. Beraz, ez dugu euskal musikaren B aldea kontatzen, ematen dugun ikuspuntua da B mailakoa.

**- Euskal musikaren historian nondik norako bidea egin duzue?**

Historia osoa jorratzen dugu, oso anitzosoa gara zentzu horretan. Neolitikoa hasi eta ia gaur egunera arte. Ez gara iritsi gaur egungo belaunaldira, baina ez gaur egungo musika gutxien dugulako, baizik eta kantei memoria kolektiboan errotuta egotea eskatzen diegulako, eta horretarako denbora behar da. Kantei denboraren filtroa behar dute benetan gure egiteko. Euskal musikaren istorioa nola izan den hasieratik kontatzen dugu eta ezagutzen ez duguna asmatu egiten dugu, demaseko muturrarekin. Historia errepasatzen dugu, baina XX. mendean zentratzen gara, unerik oparoena izan delako.

**- Euskal musikari omenaldia egiten diozue antzezlanean?**

Fenomeno kultural batekin egunero elkarrekin bizitzen garenean ez gara konturatzeko zein neurrirainoko aberastasuna duen. Guk altxor bat daukagula azpimarratu nahi izan dugu, eta zaindu dezagun.

**- Kritikarentzat tokia ere badago?**

Nahi gabe eta horrelako gauza bati buruz luze hitz egiten duzunean, zure ikuspuntua azaleratzen da nola edo hala. Alde batetik, demaseko mirespena eta maitasuna diogu gure kulturari. Eta bestetik, apur bat ikonoklastak gara. Ez gaitezen zoratu. Gauzek garrantzia daukate, baina ez gehiago ez gutxiago, eta horregatik egiten dugu umorez. Batzuentzat gauza sakratuei buruz ezin daiteke umorerik egin. Gure kulturari, hizkuntzari eta gure ondareari buruz

**PATXO TELLERIA (aktorea):**

**“Musika ez da kulturaren apaingarri bat, ezinbesteko elementua da”**



umorea egin daiteke, eta txantxetan hartu. Esango nuke jende gehienak gure buruaz barre egitea eta ikuspuntu ironikoa erabiltzea ontzat hartzen duela. Zentzu honetan gizarte modernoa garelako esango nuke.


**- Euskal gizartearentzat zenbateko garrantzia dauka musika propioa izateak?**

Musika herrikoia kultura batek daukan altxorrik esanguratsuenetakoa eta ia beharrezkoena da. Edozein kulturari buruz hitz egitean berehala ateratzen da hizkuntza horretan egindako kantaren bat. Automatikoa da. Oso lotuta dago musika kultura baita koitzarekin, oso errotuta dago. Ez da apaingarri bat, ezinbesteko elementua da.

**- la urtebete daramazue ikuskizunare-**

**kin. Oholtzatik begiratuta, nola pasatzen du jendeak?**

Antzerki-mota ezberdin asko daude eta guk estilo asko jorratzen ditugu, 'Ez dok hiru' antzezlaneanekin alderatuta proposamen arrakastuagoak batzuetan, baina kasu honetan oso erraza da antzezte eta badakigu publikoa hasieratik ikuskizunaren alde egongo dela. Musikak zeresan handia dauka fenomeno horretan eta jendeak oso gustora jasotzen du ikuskizuna, asko gozatzen du. Gainera, normalean antzerkian gertatzen ez den gauza bat gertatzen zaigu. Jende askok errepikatu egin du, behin baino gehiagotan etorri dira emantaldiak ikustera.



# Antzerki Jardunaldien 41. edizioa ate joka

GAUR Untzaga plazan eta Toribio Etxebarria kalean ikusgai izango diren giza-estatuekin hasiko da, urtero lez, Antzerki Jardunaldietako egitaraua. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da Bartzelonatik datozen antzezleen erakustaldia, Eibarren 16. urtez jarraian. DOMEKAN ere urteroko ohiturari jarraituko diote Jardunaldiok eta hitzaldi-solasaldia izango dugu Coliseoan, "Entre actores"



## Otsailaren 16an

Giza-estatu XVI.  
Erakustaldia  
17:00etatik aurrera

## Otsailaren 18an

"Entre actores" hitzaldia  
19:00etan Coliseoan

## Otsailaren 19an/20an

"Muñeca de porcelana"  
20:30ean Coliseoan

## Otsailaren 21ean

"Ez dok hiru"  
20:30ean Coliseoan



gaiaren inguruan jardungo duten Jose Sacristan, Iñaki Miramon, Gurutze Beitia eta Imanol Ariasen parte-hartzearekin. Ekitaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Hasieran ASTELEHENEAN antzetzeko asmoa zuten "Muñeca de porcelana" lanak bigarren saioa izango du, jendearen eskaerari erantzunez, MARTITZENEAN ordu berean. Hiru urte dira lan hori antzetzten hasi zirela eta bertako protagonistetako bat, Jose Sacristan, orain dela gutxi munduko 20 aktore onenen artean sartu dute. Eta, atsedenik gabe, hurrengo egunean (EGUAZTENEAN) aurtengo euskerazko lehen lanarekin gozatzeko aukera izango dugu. Tartean Teatroak eskainiko duen "Ez dok hiru" lanak musika zuzenean eskainiko du, aldi berean euskera goratzen duen bitartean. Motorrak berotzen hasi ondoren, hurrengo zazpi egunetan beste bost lan eskainiko dira.

## IMANOL ARIAS:

### "Narruzko Zezenek indartu ninduen gero Madrilen profesionala izateko"

– Zer esanahi du zuretzako Antzerki Jardunaldiaren 41. edizio honetan izateak?

Bi arlo nahasten dira hor. Alde batetik, etxetik pasatzeko aprobetxatuko dut beste behin, askotan egiten dudan moduan. Eta, bestetik, niretzat garrantzi handia izango duen urteurrena ospatuko dugula aspaldiko Narruzko Zezen osatu genuen eta unibertsitate mailako sari nazionala irabazi genuenok. Hitzaldi-solasaldian, gainera, nirekin ikasi zuten Iñaki Miramonekin izango naiz, irakaslea izan nuen Juan Ortegarekin baita, Gurutze Beitia ere ezagutzen dut... Zentzu berezia du biziko dugunak: obligazioa baino, plazer hutsa da niretzat hor izatea.


– Zelako pisua izan du Narruzko Zezen-ek zure ibilbidean?

Oparia izan zen, bi urterako beka ikaste-espeditante nahiko kaskarra zuen batentzat. Antzerkizale sutsua nintzen eta uste dut ondo aprobetxatu nuela Juan Ortegarekin ikasi nuena. Aldi berean, lehen aldia izan zen nire burua kolektibo baten partaide sentitzen nuela. Aktore bat ez delako berea bakarrik; taldekideei eskaini behar zaizkie ere. Hor dago disziplina kontua! Geroago ere nabaritu izan dut nik ez dudala ikasten irakurtzen dudanean; entzutea beharrezkoa egiten zait. Azken batean, hor ikasitakoak indarra eman zidan Madrilera joa-

teko eta horrek bihurtu ninduen profesional.

– Geratu barik diharduzu lanean, bai zinean eta baita telebistan ere. Antzerkia, dena dela, aspaldi laga zenuen, ezta?

Ba orain bueltatuko naiz. Sentsazio hori gero eta gertuago nabaritzen nuen eta ekainaren 29an "La vida a palos" estreinatuko dugu Bilboko Campos Eliseos antzokian. Flamenkoaren inguruko lehenengo monologoa izango da, Camaron de la Islaren letrista izan zen Pedro Atienzarena, eta Carlota Ferrer-ek zuzenduko duena. Atienzak behin baino gehiagotan zirikatatu ninduen lan hori egiteko eta hori zor diot. Gutxienez hiru urte iraun-



go duen egitasmoa da eta ilusioz beteta nago opari hori ere aprobetxatzeko. Datak ere lotuta ditugu, Nueva York-en, Londresen, urtarrilaren 27an Bogotan... Hogei egun libre ditudanean, antzerkia egitera! Bestela, telebistarako dihardut batez ere lanean: orain ere bi serie nabil aldi berean egiten.



**JAIME ALTUNA**  
(soziolinguista)

**- Mintegia antolatzen hasi zenetik, ia urtero egon zara parte hartzen. Zure ustez, nolako garapena izan du?**

Bai, egia esan ia urtero bertan egoteko gonbidapena jaso dut eta hala izatea eskertu behar dut, Mintegia oso interesgarria suertatzen baitzait. Nire ustez, urte guzti hauetan formatuan aldaketarik egin gabe Mintegiaren interesari eustea lortzen dela, hori da antolatzaileek daukaten meritu handiena. Urtero lortzen dute hizlari eta ekimen interesgarriak ekartzea.

**- Zure esperientzian oinarrituz, zer azpimarratuko zenuke Mintegiaren inguruan?**

Antolaketa lana, hori nabarmenduko nuke. Izan ere, ...eta kitto! Euskara Elkartek egiten duen lan txukuna azpimarratu behar da. Horrekin batera, Min-

## “Mintegiak Euskal Herri osoan garatzen ari diren ekimenen berri ematen du beti”

**Euskararen Transmisioa VIII. Mintegia** hartuko du Portaleak martxoaren 7an. Goiz osoan zehar geure hizkuntzari lotutako gai eta esperientzia ezberdinak bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea izango da aurten ere, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen hitzaldi-sortari esker. Agurtu aurretik, hizlariekin mahai-ingurua egingo da eta hori dinamizatzen izango da Jaime Altuna.

tegiaren praktika eta teoria uztartzeko egiten den ahalegina aipatu behar da. Bertan entzun dira gerora dezente zabaldu diren “transmisioari” lotutako ikuspegi berriak edo kontzeptuak: hizkuntza-sozializazioa, belaunaldien arteko elkarrekintza eta beste asko.

**- Zeinentzat ikusten duzu bereziki gomendagarria?**

Euskararen biziberritzearen inguruan interesa duen edonorentzat interesgarria eta gomendagarria dela pentsatzen dut: euskalgintzako kideak, irakasleak, euskara teknikariak... Mintegi honetan urtero Euskal Herrian zehar garatzen ari diren oso ekimen interesgarriak ezagutzeko parada izateaz gain, euskararen jarraipenari begira dauden pertsonen hausnarketak entzuteko eta solasaldietan parte hartzeko aukera izaten da.

Gainera, oso formatu handiko mintegia ez denez, entzuleek ere parte hartzeko aukera polita izaten dute, hala nahi izanez gero.

**- Aurten ere moderatzaile izango zara mahai-inguruan. Pentsatu duzu nondik nora joko duzun edo zein gairi helduko diozun?**

Mahai-ingururako lehen ideiekin zirriborro modukoa egin dut, baina ez nuke gehiegi aurreratu nahi, sorpresarako tartea izatea komeni baita. Dena dela, aurtengo Mintegiaren ezaugarri oso interesgarri bati heltzeko asmoa daukat: geografikoki “euskararen ertzetan” kokatu daitezkeen errealitateak aurkeztuko dira. Gainera, mahai-inguruko kide guztiak Arabatik etorriko direnez, bertan egiten ari diren lanak eta hausnarketak plazaratzeko aukera aparta izango da.

## “Zer egin liburuekin: kontu kontari” tailerra antolatu dute gurasoentzat

Bularretik Mintzora egitasmoaren barruan, “Zer egin liburuekin: kontu kontari” gurasoentzako tailerra emango dute otsailaren 27an eta martxoaren 6an, 18:00etan, Portaleko ikastaro gelan (denera, lau orduko tailerra izango da). Yolanda Arrietak emango duen tailerra doan izango da, baina parte hartzeko aurretik izena eman behar da, Udal Liburutegian zuzenean,



943708444 (4200 luzapena) telefonora deituta edo euskara@eibar.eus helbidera idatzita. Edo, nahia go izanez gero, umearen ikastetxean izena emateko aukera ere badago.

Galtzagorri elkarteak sortu zuen Bularretik Mintzora egitasmoak irakurtzeko zaletasuna sustatzen du eta Eibarren JSM Udal Liburutegiarekin, Euskara Zerbitzuarekin eta ikastetxeekin lankidetzan burutzen da.

## Arma erakusketaren euskarazko katalogo digitala aurkeztuko dute egunean

Armagintzaren Museoa erakusketaren katalogoa argitaratu zuela urtebete igaro da eta laster euskarazko bertsioa emango dute argitara, EPUB formato digitalean. Horren aurkezpena datorren asteko egunean izango da, 19:00etan Museoa, eta ekitaldian itzulpena egin duen Alfontso Mujika Etxeberriak lanaren nondik norakoak azalduko ditu. Horrez gain, Igor Goñik Eibarko armagintzari buruz egingo du berba. Aurkeztuko duten katalogoan gaur egun Museoa ikus daitezkeen pieza guztiak bilduta daude, xehetasunez dokumentaturik. Jatorrizko katalogoa Jose Luis Valenciagak egin dako lanaren emaitza da.





## Eibar-Bartzelona partidua girotzeko kontzertua bihar Tas Tasen

Bihar arratsaldean Ipuruan Eibar eta Bartzelona taldeen arteko partida jokatuko dela-eta, norgehiagoka hasi aurretik girotzen joateko aukera izango da Tas Tas kafe antzokian, 12:30etatik aurrera Aitorpenak (Aitor Echebarria Manresak) abeslariaren eskutik egingo den "germanor" (katalanez, senidetze esan nahi du) kontzertuan. Bartzelonan bizi den musikari euskaldunak bere lan berria, "(At Delia) Records" diska aurkeztuko du emanaldian. 2015ean bere lehen EPa, "La sombra de Cliff" izenekoa eman zuen argitara eta, izandako harrera onarekin animatuta, 2016an lan hori ezagutzera emateko birari ekin zion eta horren agurra Madrilan, Delia Records diska-dendan egin zuen, 2017ko martxoan. Orduko grabazio hori editatu eta emaitza orain aurkezten dabilen diskoa izan da.



## Udaberriko Kontzertuarekin hasiko du denboraldia Txirrindulari Elkarteak

Eibarko Txirrindulari Elkarteak, urteroko martxan, denboraldi berria hasteko kontzertu berezia antolatu du aurten ere. Birjiñape tabernaren babesarekin egingo den IX. Udaberriko Kontzertua domekan izango da, 12:30ean Coliseoan. Carlos Sánchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian, Eibarko Cielito Musika Bandak txirrindularitzarekin zerikusia duten piezak joko ditu: "Txirrindulariaren txirriña" (polka, Carlos Sanchez-Barba), "Voces Primavera" (balsa, Johann Strauss), "Rayos y Truenos" (polka, Johann Strauss), "Don Manolito" (zarzuela, Pablo Sorozabal), "Trisch Trsch" (polka, Johann Strauss), "Orient Express" (Philip Sparke) eta "Perpetuum Mobile" (Johann Strauss). Eguraldi ona eginez gero, kontzertuaren aurretik kalejiran ibiliko dira musikariak, 11:15ean Untzagatik abiatuta.



## Henna tailerrerako izen-ematea

...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik henna tailerra egingo da martxoaren 1ean (eguna), 18:30etik 20:00etara elkartearen lokalean (Urkizu, 11 solairuartera). Izen ematea astelehenean zabalduko dute eta interesa duenak 943 20 09 18 telefonora deitu dezake edo, bestela, ongietorri@etakitto.eus helbidera idatzi. Tailerra Berbalagunentzat bereziki antolatu dute eta, beraz, horiek izango dute lehentasuna izena emateko orduan. Bete bariko tokirik geratuko balitz, izen-ematea gainontzeko guztientzat zabalduko dute.

## Ibarrolaren erakusketa Portalean

Aurreko barixakuaz geroztik Jose Ibarrolaren 'Cuestión de tiempo' erakusketa ikus daiteke Portalean. Ibarrolaren proposamenak bisitariak denboran atzera, Quatrocentoraino eramatea bilatzen du. Erakusketa osatzen duten lanetan artistak eskultura eta margolaritza hizkuntza berean fusionatu ditu. Martxoaren 4ra arte egongo da ikustera joateko aukera, 18:30etik 20:30era, martitzenetik domekara bitartean.



## Emakumeendako literatur-solasaldia

Pagatxa emakume elkartearen eskutik eguaztenean literatur-solasaldia egingo da, 21:30ean. Saioan "La mecánica del corazón", Mathias Malzieu idazlearen liburuari buruz jardungo dute. Parte hartzeko interesa izanez gero, 687368907 telefono zenbakira deitu.



**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko  
**JANTZIAK**

ume eta gazte  
**Kopina**  
moda

 kopinamoda

**San Agustin, 3**  
943 204181





LEIRE NARBAIZA

## Txotxó!

**Etorri hona, txotxó! Takian potian erabiltzen dodan esaldixa da,** batez be umiekin. Natural-natural eta gustora esaten dot, pentsau barik, barru-barrutik urtetzen destalako txotxó horrek. Baiña konturatuta nago aspaldixan, botatzen dodanian arraro begiratu, eta batzuek barre egitten destela. Barre *chocho* aitzen dabelako; hau da, "alua, potxoliña" ententitzen dabe, gaztelaniaz entzutzen eta aitzen dabelako euskerako berbia.

Penia da gure jardun guztia erderiaren galbahitik pasau bihar hori. Gure belarririk be euskeriandako erderen filtrua dakela esan gura dau honek!

Zelan izan leike ez ezagutzia gure-guria dana? Txotxo oso berba korrientia da Mendebaldeko euskera askotan, baita Eibarkuan be, begiratu bestela Lexikoian edota [www.eibarko-euskara.eus](http://www.eibarko-euskara.eus)-en! Mutikueri esateko erabiltzen da, txotxó, azken "o" horretan indarra jarritta, azentua emonda, ixa beti deitzeko, bokatibuan. Berba bizixa, argotekua, zihero erabilgarrixa.

Gero kejauko gara gure ume eta gaztiak euskera formala baiño ez dakixiela, euskera bizi eta afektibua falta jakuela. Forma hórrek erakusten ez badetsegu, zelan nahi dogu ikastia eta erabiltzia? Ezin! Kontua da guk geuk ezagutu eta erabili biharko genzukezela, ezta? Asko esan gatzetxuen euskeriaz, baiña geuria be gero eta gatzbako eta maskalagua izanda, zer gura dogu?

## Euskarari buruzko bizipenak kontatzeko mahai-ingurua egingo da martitzenean

"Hamaika Berbaldi" ekimenaren barruan, Eibarren AKEBAIk antolatutako hirugarren saioa datorren martitzenean izango da, 19:00etan, Portaleko areto nagusian. Oraingoan mahai-ingurua prestatu dute: "Nola aldatu diren gauzak, kamarada!" izenburuari jarraituta, hainbat belaunaldi ordezkaturako dituzten eibartarrak euskararen inguruan izandako bizipenak kontatuko dituzte. Horretarako, Serafin Basauri, Luis Alberto Aranberri "Amatiño", Leire Narbaiza, Nerea Barruetaña eta Beñat Laskurain gonbidatu di-

### hamaika BERBALDI



**MAHAI-INGURUA:**  
SERAFIN BASAURI - AMATIÑO - LEIRE NARBAIZA  
NEREA BARRUETAÑA - BEÑAT LASKURAIN  
**"Nola aldatu diren gauzak, kamarada!"**  
Eibartar euskaldunen bizipenak belaunaldiz belaunaldi


Otsailak 20, asteartea, 19:00etan  
Portaleko Areto Nagusian

tuzte eta moderatzailea, berriz, Jokin Bergara izango da. Guztien artean kontatuko di-

tuzten bizipen eta gogoetek, Eibarren euskarak izan duen ibilbidea eta bilakaera hobeto irudikatu eta ulertzeko lagungarriak izango dira, zalantza barik. Bestalde, mahaikideei gustura egiteko moduko galderaren bat izanez gero, aurretik egiteko aukera zabaldu dute. Animatuz gero, sartu [www.akebai.eus](http://www.akebai.eus) orrian eta hor aurkituko duzue zuek nahi duzuen tertuliakideari galdera egiteko lotura. Domekara arte jasoko dituzte galderak eta, ondoren, Jokin Bergara moderatzaileak mahai-inguruan egingo dizkie.

## Bigarren diskoa eman du argitara Kvalvikak

Kvalvika proiektu musikaren atzean dagoen David Karba eibartarrak bere bigarren lana atera du: "I'm your social network, I'm your talent show". Iaz bere lehen lana kaleratzeko egin zuen moduan, oraingoan ere musikariak berak hartu du bere gain lanaren ekoizpena.



Orain dela hilabete inguru eibartarra Azpeitian egon zen, musika proiektuei laguntzeko asmoa duen Arkupehotsak egitasmoari lotutako emanaldian lan berria zuzenean aurkezten eta jada Spotify eta Bandcamp moduko plataforma digitaletan entzun daiteke. Kvalvikaren lehen lanaren oinarrian musika elektronikoa dago, baina musikariak berak dioenez, "Mogwai, Nine Inch Nails edo Boards Of Canada bezalako taldeen eragina" ere badu. Bigarren lana, berriz, "sare sozialetan edota hiperkomunikazioaren arloan inspiratuta" dagoela dio. Azalaren diseinua Josu Torrealday-rena da eta argazkiak, berriz, Aitor Zubizarretarenak.

## Astekariaren Aratoste lehiaketako saria Eneko Illarramendik irabazi du

Aratosten inguruan lehiaketa antolatu dugu aurten ere ...eta kitto! astekariaren 1045. alean publizitatea jarri zuten tabernekin eta, Facebook-eko gure orrian sortu genuen ekimenean bozkatu dutenen artean zozketa egin eta gero, irabazlea Eneko Illarramendi izan da, zorionak! Aurten 35 lagun animatu dira gure lehiaketan parte hartzera eta, horien botuak zenbatu ondoren, gehien gustatu zaien taberna Guridi izan da. Bigarren gustokoena, berriz, Katu Kale izan da. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztiei!





### The Reverend Shawn Amos **ERMUAN**

Los Angelesen 70. hamarkaldian sortutako The Reverend Shawn Amos taldeak kontzertua eskainiko du Lobiano kultur etxean bihar 20:00etatik aurrera. Show zirrargarriarekin gozatzeko aukera bikaina izango da Shawnena, beti ere goi mailako musikariak lagun dituela. Bluesaren sermoilari jatorrak lehen nota jo orduko bluesaren fededun bihurtzen duen armonika liluragarriaz etorriko zaigu, Gaztelupeko Hotsatik diotenez.



### Idi-dematako Euskadiko txapela jokatu da bihar **ELGOIBARREN**

Sigmako probalekuan izango dute hitzordua gaueko 21:00etan eta, Juan Mari Uranga Memorialaren barruan, hiru idi-parek jardungo dute txapelaren bila: Moruetako Kamiñoko Jatetxeko bikotea, Lemoizko Andrakas Sagardotegikoa eta Bakioko Birtxinaga. 1.785 kiloko harriarekin egin beharko dute ordu erdiko lana eta irabazleak 1.300 euro jasoko ditu, bi manta, txapela eta Federazioaren sariarekin batera.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## hildakoak

- M<sup>a</sup> Antonia Salgado Satue. 89 urte. 2018-II-7.
- Margarita Gismeno Asensio. 92 urte. 2018-II-8.
- M<sup>a</sup> Jose Bergara Osa. 67 urte. 2018-II-10.
- Aurora Simon Aguayo. 84 urte. 2018-II-10.

## jaiotakoak

- Nora Laskurain Arrizabalaga. 2018-II-6.
- Nicolas Souto Nazaret. 2018-II-6.
- Gael Santamaria Martinez-Alcocer. 2018-II-10.
- Rayan Maachou Sefioun. 2018-II-11.

## farmaziak

- Barixakua 16  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Zapatua 17  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 18  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 19  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Martitzena 20  
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 21  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 22  
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Barixakua 23  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI -2018AN-  
**Lafuente** (Sostoatarren, 10)

## SUDOKUA

6	1	8	5	2	7	4	9	3
4	5	2	1	3	9	8	6	7
9	3	7	8	4	6	5	1	2
2	8	4	9	6	5	3	7	1
1	9	6	4	7	3	2	5	8
5	7	3	2	8	1	9	4	6
8	4	5	7	1	2	6	3	9
7	6	9	3	5	8	1	2	4
3	2	1	6	9	4	7	8	5

AURREKOAREN  
 EMAITZA

2	5					1	
		2	6			8	5
			8				9
3	1	4				9	
			1				
	8			6		2	7
8			9				
5	6		7	8			
	4					7	8

## telefono

### jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## Barixakua 16

### GIZA-IRUDIAK

**17:00.** XVI. Giza-irudien erakustaldia, Antzerki Jardunaldien egitarauaren barruan. Untzagan eta Toribio Etxebarria kalean.



## Zapatua 17

### ASTELENA HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

### KONTZERTUA

**12:30.** Aitorpenak abeslaria, Eibar-Bartzelona partidua dela-eta. Tas Tas kafe-antzekian.

### UMEENDAKO ZINEA

**17:30.** "Frozen" (Disney). Sarrera doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian

### SAN VALENTIN FESTA

**23:30/04:30.** Saio berezia, Aitor Osunarekin. Eibarko Gehituk antolatuta. Chic tabernan.

## Erakusketak

### Otsailaren 18ra arte:

- VICENTE IRIONDOREN MARGO ERAKUSKETA. (Topalekuan)

### Otsailaren 18ra arte:

- PILAR AGUAYO, NEKANE ARANBURU ETA TXARO BARINAGA-REMENTERIAREN ARGAZKI ERAKUSKETA. (El Ambigú eta Portalea jatetxean)
- "DISTIRA" ARGAZKI ERAKUSKETA. (Eibarko Klub Deportiboan)

### Martxoaren 4ra arte:

- "CUESTION DE TIEMPO" JOSE IBARROLAREN ERAKUSKETA. (Portalean)

## Domeka 18

### KONTZERTUA

**12:30.** IX. Udaberriko Kontzertua, Eibarko Musika Bandaren eskutik. Txirrindularitza-musikarekin osatutako egitaraua (eguraldi ona eginez gero, **11:15**ean kalejira egingo dute, Untzagatik abiatuta). Coliseoan.



### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00.** "Entre actores" hitzaldi-solasaldia, José Sacristán, Imanol Arias, Iñaki Miramón eta Gurutze Beitia antzezleekin. Sarrera librea. Coliseoan.

## Astlehena 19

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20:30.** "Muñeca de porcelana" (Bravo Teatro). 15 euro (10'5 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

## Martitzena 20

### IKASTEN

**10:00.** "Buru argiak 2" (burmuina indartzeko ariketak) hitzaldia, Elena Iraolagoitiaren (Adindu) eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00/19:00.** Punto-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### AURKEZPENA

**18:00/19:30.** Kide Ugariko Familien Euskadiko Federazioko Hirukide elkarte. Portalean.

### MAHAI-INGURUA

**19:00.** "Nola aldatu diren gauzak, kamarada", Eibarren AKEBAIK antolatuta. Parte hartzaileak: Serafin Basauri, Luis Alberto Aranberri "Amatiño", Leire Narbaiza, Nerea Barrietabeña eta Beñat Laskurain. Portalean.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20:30.** "Muñeca de porcelana" (Bravo Teatro). 15 euro (10'5 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

## Eguaztena 21

### IKASTEN

**09:00.** Ibilaldia: Aretxabaleta-Urkulu (urtegiari buelta ematea). Bazkaria eraman. Autobusaren irteera Untzagatik.

### BERBETAN

**10:30/12:30 eta 17:30/19:00.** Dendariak eta Ostalariak Berbetan programari eskainitako txokoa, Neguko Beherapenen Azokan (Toribio Etxebarria kalean).

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20:30.** "Ez Dok Hiru" (Tartean Teatro). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparruan.

### LITERATURA

**21:30.** "La mecánica del corazón", Mathias Malzieu idazlearen liburuari buruzko solasaldia, Pagatxaren eskutik.

## Eguena 22

### IKASTEN

**10:00.** "Europa-Katalunia-Euskadi, independentzia edo interdependentzia" hitzaldia, Juanjo Alvarezen (EHUKo Nazioarteko Zuzendaritzan katedraduna) eskutik. Armeria Eskolan.

### BERBETAN

**10:30/12:30 eta 17:30/19:00.** Dendariak eta Ostalariak Berbetan programari eskainitako txokoa, Neguko Beherapenen Azokan (Toribio Etxebarria kalean).

### KALEETAN KANTUZ

**17:00.** Dantza (beheko maila). **18:00.** Dantza (maila altua). **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### ODOL-EMATEA

**18:30.** Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

### AURKEZPENA

**19:00.** Arma Erakusketaren euskarazko katalogo digitalaren aurkezpena. Armagintzaren Museoa.

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**




Zorionak, MARA, printzesa! martitzenian 4 urte beteko dozuz-eta. Asko-asko maite zaittugu. Musu potoluak famelixaren partez.



Ongi etorri, MARKEL, urtarrillaren 29tik gure artian zagoz-eta. Aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, SUHAR, gaur 2 urte bete dozuz-eta! Haunditzen haunditzen gure txipiroi txikixa... Egun politta pasau eta segi beti bezain saltsero!



Zorionak, UXUE, haraiñegun 3 urte bete zenduaz-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maialenen partez!



Zorionak, KUKI, bixar 32 urte beteko dozuz-eta. Beste urte bat zurekin ospatzeko! Ez zaitzez aldat. Asko maite zaittut. Janire.



Zorionak, JON!!!, martitzenian 6 urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi-haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JON, zure 3. urtebetetzian. Gure txikitxua badoia haunditzen! Milla musu potolo eta ondo pasa, famelixaren partez.



Zorionak, ADAM, bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat amatxo eta famelixaren partez. Oso ondo pasa!



Zorionak, bikote!! Atzo LIBEK 10 urte egin zittualako eta urtarrillian ALEXek 7 urte. Asko maite zaittuegu!!



Zorionak, HELENA, martitzenian 5 urte bete zenduaz-eta. Besarkada haundi bat etxekuen eta, batez be, MARTINen partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**17an: 19,45, 22:30**

**18an: 20:00**

**19an: 20:30**

**"Cincuenta sombras liberadas"**

Zuzendaria: James Foley

**(2 ARETOAN)**

**17an: 17:00, 19,45, 22:30**

**18an: 20:00**

**19an: 20:30**

**"Cuando dejes de quererme"**

Zuzendaria: Igor Legarreta

**(ANTZOKIAN)**

**17an: 17:00, 19,45, 22:30<sup>(1)</sup>**

**18an: 17:00<sup>(1 aretoa)</sup>**

**19an: 20:30<sup>(1 aretoa)</sup>**

**"El cuaderno de Sara"**

Zuzendaria: Norberto Lopez

**(ANTZOKIAN)**

**17an: 17:00**

**18an: 17:00<sup>(2 aretoa)</sup>**

**"Boonie Bears. El gran secreto"**

Zuzendaria: Leon Ding



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisia salgai Jardñeta kalean. 2 logela. Eguzkitsua, balkoiarekin. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. 99.000 euro. Tel. 659-088244.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela, 2 komun, garajea eta trasteroarekin. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-752732.
- Etxea salgai Ubitan. 2 logela. Iggogailua behetik (0 kota). Berriztuta eta bizitzera sartzeko moduan. Toki lasaia. 122.000 euro. Tel. 663-070757.

### 1.2. Errentan

- Pisia, edo logela, hartuko nuke alokairuan. Tel. 612-299869.
- Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 605-363870.
- Amañan estudioa edo logela (sukaldea erabiltzeko eskubidearekin) hartuko nuke alokairuan. Tel. 674-277661. Cristina.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 674-930223.
- Pisia alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Jantzita. Ez da animaliarik onartzen. Tel. 653-747499.
- Hiru lagunentzako gela behar dute Eibarren errentan. Tel. 652-667788.
- Pisu baten bila nabil konpartitzeko, Eibarren edo inguruan. Neska euskalduna naiz eta Eibarren lan egiten dut. Tel. 606-385144 eta 646-418190.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai J.A. Gisasola kalean (San Pion), kale mailan. Tel. 610-405146.
- Pabilioia salgai Elgetan (935 m.), instalazio guztiarekin: koadro elektrikoa, ur beroa, aire-sistema. 240.000 euro. Tel. 605-712852.

### 3.2. Errentan

- 33 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Guztiz jantzita. 460 euro, negoziagarriak. Urtebeterako gutxienez (hiru hilabete doan). Tel. 688-678934.
- Garaje itxia alokagai Untzaga inguruan. Tel. 652-775746.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 634-446252.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-963899.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-999079.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-130120.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 608-897639.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 687-103913.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 602-172650.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-765929.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 627-167617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 603-683176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez ere. Esperientzia. Tel. 652-894575.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-891709.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 688-712075.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 629-889465.
- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-995976.
- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-277173.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-400915.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 675-965130.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-598999.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarrera moduan. Autoarekin eta erizain tituluduna. Tel. 650-455685.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-026510.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabal. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 664-899227.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 677-768682.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta erakuntzan lan egiteko. Tel. 677-134181.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabal. Tel. 665-274438.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-628137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-358896.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erizain-laguntzailea. Erreferentziak eta 10 urteko esperientzia. Tel. 697-754174.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 631-802772.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean gaixoak zaintzeko ere. Tel. 666-197831.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-910861.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-798284.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez edo ospitalean ere. Tel. 603-514085.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-170781.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-277037.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-896989.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-123942.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-709366.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 677-324451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-324473.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-201935.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-265747.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Gizon enkofradorea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 667-059774.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-064084.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 652-430110.
- Mutila eskaintzen da automozio alorrean edo beste edozein arlotan jarduteko. Tel. 652-430110.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-180539.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-061103.

### 4.2. Langile bila

- Bertako emakumea behar da larunbat eguerditik igande gauera eta baita jaiegun batzuetan emakume bat zaintzeko. Tel. 605-708393. Leire.
- Pertsona behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera, 07:00etatik 11:00etara. Izena emateko: umezainketa@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- "Logure" koltxoa salgai (1'35x1'80x0'20). Egoera onean. 40 euro. Tel. 943-120030.
- Ohe artikulatua salgai. Motorizatua, hiru mugimenduekin. Gutxi erabilia. Tel. 635-746250. Ana.

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eu

## egitaraua

- 08:45-09:00:** Akreditazio eta dokumentazioa.
- 09:00-09:15:** Ongietorria.
- 09:20-10:05:** "Nerabezaroan euskarari eustea. Zerk finkatzen du transmisioa?".  
**Paula Kasares.** Soziolinguista eta NUPeko irakaslea.
- 10:10-10:35:** "Arabarra, gaztea eta euskaltzalea... Bai! Eta zer?".  
**Unai Viana.** Arabako Gazte Euskaltzaleak taldeko kidea.
- 10:40-11:05:** "KOMUNITATEA, euskara biziberritzeko ardatza erdal eremuko ikastetxe batean: Gasteizko Ramon Bajoko ekimena".  
**Leire Diaz de Gereñu eta Isabel Santamaria.**  
Gasteizko Ramon Bajo ikastetxe gurasoak.
- 11:10-11:35:** "Ideia abstraktutik, sentimenduen adierazmenera".  
**Imanol Canales eta Garikoitz Lasa.** Bilboko Ave Maria Ikastetxea.
- 11:40-12:00:** "Praktika txikiak, bizipen handiak. Hizkuntza- praktikak aktibaziorako bidean".  
**Edorta Lopez Rey.** AEK-ko Praktikatuz zerbitzuko koordinatzailea.
- 12:00-12:20:** ATSEDENALDIA
- 12:25-12:50:** "Ipar Euskal Herrian, zer berri? Transmisioa, ezagutza, erabilera, jarrerak, diskurtsoak... eta etorkizunerako erronkak".  
**Eneko Gorri.** Biarrizko Herriko Etxea euskara teknikaria eta Mintzalasai elkartearen kidea.
- 12:55-13:40:** "Ikasle etorkinak eskolan, euskararentzat (eta bestela) non dago kaltea?".  
**Amelia Barquin.** MUNeko irakaslea.
- 13:40-14:25:** MAHAIINGURUA: Amelia Barquin, Unai Viana, Leire Diaz de Gereñu  
Dinamizatzailea: **JAIME ALTUNA.**
- 14:30:** AGURRA
- 14:35:** BAZKARIA

Martxoak 7, asteazkena

# EUSKARAREN TRANSMISIOA mintegia

**IZEN EMATEA zabalik**

[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)

[normalizazioa@etakitto.eus](mailto:normalizazioa@etakitto.eus) 943 20 09 18



Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



**berbetan**



Euskeraz hitz egiteko lotsa gainditu nahi duzu?

Ahozko euskera hobetu nahi duzu?

Euskeraz hitz egiteko lotsa gainditu nahi duzu?

Hemen aukera:

parkean

kirola egiten

taberna batean...

Zuk aukeratu non eta noiz  
Taldea jatorrak eta giro informala

Doan!



Informazioa: 943 20 09 18

Eta euskalduna bazara eta praktikatuz nahi duenari lagundu nahi badiozu eman izena zuk ere!

Gure betaurreko guztiak  
2018 bildumakoak dira

# BIKOITZA GOZATU

VARILUX SOLUTIONS-EKIN

## ZURE 2. LEIAR PROGRESIBOAK BARNE

**VARILUX**<sup>®</sup>  
MUNDU MAILAN LEHENA LEIAR PROGRESIBOETAN



Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Errenteria • Irun • Lasarte-Oria • Ordizia • Tolosa

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)   



**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan